


aRRarteko

Herriaren Defendatzailea *Defensoría del Pueblo*

12^{zk}

Eusko Legebiltzararentzako urteko txostena. 2009ko laburpena







AURKIBIDEA

AURKEZPENA	05
DATU OROKORRAK	06
ARRETA PUBLIKOA BEHAR DUTEN TALDEAK	08
JARDUERAK	14
EZOHIZKO TXOSTENAK	20
GOMENDIO OROKORRAK	26
BESTELAKO JARDUERAK:	30
_ 20. URTEURRENA	30
_ ARGITALPENAK	34
_ BIGARRENEZ ARARTEKO HAUTATZEA	35
_ JARDUNALDIAK ETA EKITALDIAK	36
_ UDAKO IKASTAROAK	37
_ KOORDINAZIO JARDUNALDIAK	38
_ BISITAK	39
INFORMAZIO INTERESGARRIA	40



Iñigo Lamarca - Arartekoa

AURKEZPENA



Aldizkari honetako orrialdeetan **azken urtean burutu ditugun jardun eta ekintza adierazgarrienak** laburbildu dira. 2009an, **Arartekoak 20 urte bete** zituen. Ospatzeko, Bilbon jardunaldi batzuk egin genituen: “Politika publikoen erronkak demokrazia aurreratuan”, eta Gasteizko Artium museoan erakundearen ekitaldia antolatu genuen. Bertan, erakundearen lehen 20 urteetan erakundeko arduradun nagusi izan diren pertsonen omenaldia egin genien: Juan San Martín, Xabier Markiegi eta Mertxe Agúndez. Egindako lana eskertzeko, Judas Arrieta artistak egindako obra eman zitzaien, eta, Juan San Martinen kasuan, haren alargunari, M^a Paz Ibeas andreari, hain zuzen. Omenaldia arartekoaren ondokoei eta Arartekoaren erakundean lan egin duten edo egiten dutenei egin zitzaien ere.

Urteurrenarekin batera, gure burua EAEko herritarren aurrean hobeto ezagutarazteko lanari ekin genion. Informazio kanpaina abiatu genuen, eta, horretarako, **EAEko udaletan Arartekoari buruzko informazio puntuak jarri genituen**. Puntu horietan esku-orriak eta aldizkariak aleak jarri genituen. Aurten, **Foru Aldundietako** eta **Eusko Jaurlaritzako** herritarrentzako arreta bulegoetara zabalduko dugu. Arartekoa EAEko gizartearengana hurbiltzeko, zure **iritziak, iradokizunak eta mota guztietako ekarpenak** jaso nahiko genituzke, ematen dugun zerbitzu publikoaren kalitatea hobetu ahal izateko. Teknologia berriak bultzatzen jarraitu nahi dugu, eta, bereziki, gure **web gunea** (www.ararteko.net). Orri horretan gure jardunari buruzko informazio erabilgarria aurkitzeaz gain, herritarren elkar ekintzan aritzeko bide izatea nahi dugu.

Urrian, hurrengo bost urteetarako **ararteko berrizendatu ninduen Eusko Legebiltzarrak**, eta ohore handiz hartu nuen. Aldi berean, Julia Hernandez erakundeko ondoko gisa berrizendatu nuen. Niretzat erronka ezin hobea da horrenbeste sinisten dudan erakunde honetan lan egitea. Erakunde honek **personen eskubideen bermea** osatzen du, baita herritarren eta herritarren erakunde sozialen eta herri-administrazioen arteko bitartekaria ere. Erakundeak demokraziaren kalitateari ekarpenak egiten dizkio. Nire erantzukizunei behar bezala aurre egiteko indarra, inspirazioa eta entzuteko eta autokritika egiteko gaitasuna izango ditudala espero dut. Euskadiko herritarrek Ararteko erakundearen lanarekin kontent egotea nahiko nuke, ematen dizkiegun zerbitzuak ahal den kalitate onenekoak egin nahiko baintuzke. Arartekotik, beraz, ahal den neurrian, eta inpartzialtasun eta independentzia oroz, noranzko horretan bidea urratzen jarraituko dugu, eta horretarako legeak gure esku jartzen dituen lanabesak erabiliko ditugu. EAEko herritar guztiengana helduko diren elementu komunikatzaileak sortuko ditugu, eta komunikazio bideetatik giza eskubideak errespetatzeko balio komunak igaroko dira.

Iñigo Lamarca Iturbe
Arartekoa

DATU OROKORRAK



Zuzenean bideratutako kexen banaketa eragindako administrazioen arabera

Eusko Jaurlaritza	512
Toki administrazioa	485
Foru administrazioa	261
Justizia	27
Erakunde publikoak	22
Estatuko administrazioa	17
Erakunde pribatuak	1

2009. urtean **4.221 kontsulta** izan ziren. Kexak erakundearengana telefonoz zuzendu ziren zein arreta zuzeneko Arartekoaren hiru bulegoetakoren batera bertaratu ziren pertsonak egin zituzten. **Guztira 2.844 bisita jaso ziren eta, horietatik, 729 kexa burutu ziren, hau da, % 25,63.** Horrek arreta zuzeneko bulegoetan egiten den aurretiazko lanaren garrantzia agerian uzten du - farrazoi ugariengatik, Arartekoak ikertzerik izango ez dituen erreklamazioak ez dira onartzen-.


2009an, guztira **1.917 kexa** aurkeztu zizkieten Arartekoari. Horietatik, 1.440 izapidetzeko onartu ziren, Ararteko erakundeak aztertu eta iker zitzaizkien.

Internet kexa bat aurkezteko herritarrek gehien erabiltzen duten bide gisa finkatu da. Kexen % 38,91 bide horren bidez jaso zen. Erreklamatzailen % 38,39 gure bulegoetako batera bertaratu zen.

lax, gainera, **ofiziozko 75 espediente** hasi ziren. 2009. urtean erabat izapidetu diren kexei dagokienez, aztertutako kexen % 32,34an okerreko jarduerak atzeman dira. **Eragindako administrazioak kexa eragin zuten jarduketak zuzendu ahal izan dituzte,** okerreko jardueraren bat agertu duten erreklamazioen % 95,92n.

Kexen arloaren arabera, **2009an eduki ekonomikoak duten gizarte prestazioekin lotutako erreklamazioak ugaritu dira,** baita haurren eta nerabeen laguntzarekin lotutakoak ere.


2009an, Eusko Jaurlaritzaren aurkako kexak izan dira



Erreklamatzailen Ararteko erakundearen jardueraz egin duten balorazioa


oso ona	%56,99
nahiko ona	%21,51
nahiko txarra	%11,38
oso txarra	%4,30
erantzunik ez	%5,38

KEXAGILEAK ETA KEXAK AURKEZTEKO ERA




Jasotako kexen banaketa erreklamatzaileran ezaugarrien arabera

gizonezkoak	969
emakumezkoak	826
taldeak	118
identifikatu gabeko	4



Jasotako kexen banaketa erabilitako hizkuntzaren arabera

gaztelania	1804
euskara	92
biak	17
katalana	3
frantzeza	1



Jasotako kexen banaketa aurkezteko moduaren arabera


internetez	765
bulegoen	736
postaz	369
faxez	47

ugarrienak (% 38,64); tokiko erakundearen aurkako kexak, beriz, urritu dira. Nolanahi ere, espedienteetan inplikaturako administrazioak ikertzeak ez du esan nahi okerreko jarduerarik egin dutenik, haren esku-hartzeren bat kexa eragile izan dela baizik.

Gizarte ekintzak eragiten ditu foru aldundien aurka jasotzen ditugun kexen kopuru handiena. Kopuru horrek gora egin du 2009an, nagusiki, atzerriko adingabeek


Arabako Foru Aldundiari jarritako kexen ugaritzeagatik.

Kexa aurkeztu duten pertsonen euren borondatez eta izena eman gabe betetzen duten inkestak adierazten du **Arartekoaren esku-hartzea**, alegia, adierazitako interesa, eskaintako arreta, egindako gestioak, etab., **oso ona edo nahikoa izan direla (erantzun dutenen % 78,5)**, baita kexa ebatzi ez den edo beren aurka ebatzi den kasuetan ere.




Ararteko erakundearen esku-hartzea zenbaiteraino izan den eraginkorra

konpondutako irregulartasuna	%86,40
konpondu gabeko irregulartasuna	%13,60 (gomendioa ez da onartu)



Arartekoak jasotako kexa kopuruaren bilakaera (2000-2009)

■ 264 kexek kexa berdin-berdinen 2 multzo osatzen dituzte



E'TORKINAK

Etorkinak gure gizartearen zati dira. Beraz, erakunde publikoek horien egoera eta premiak aztertu behar dituzte eta defentsa erakunde batek -adibidez, Arartekoak- beren eskubideak defendatu behar ditu. Etorkinen egoera Europar Batasuneko eta Espainiako politika publikoen araberakoa da. Ordea, lurralde administrazioak arduratzen dira egoera humanitarioaren errealitateaz eta gizarteratzeko politikaz eta horrek interesak bateratzeko arreta kontraesankorrak eta zailtasunak eragiten ditu.

Laguntzarako sare egokirik ez dagoenez, etorkinak zaurgarritasun egoeran daude enpleguaren zailtasunen aurrean. Aurten, jateko eta bizileku premiari aurre egiteko, **atzeritarren prestazio ekonomikoen eskaera eta laguntza eskaerak ugaritu dira**. Administrazioek irizpide batzuk ezarri dituzte eta aipatu irizpideek pertsona horiek prestazio ekonomikoak jaso ditzaten zaildu dute. **Egoera eskasa** dela eta, **asentamenduak sortu eta txabolak eraiki** dira, batez ere, Bilbo inguruan. Larrialdietako gizarte zerbitzuek ezin diote erantzuna eman lanik ez duten pertsonak egindako eskaerari. Polizi esku-hartzeak asentamenduak eta txabolak aztertu dituzte, horien jarraipena saiheste aldera. Hala izan zen Zorrozaurren adibidez eta, horren ondorioz, erakunde honen esku-hartzea bideratzen hasi ginen. Ordena publikoko neurriak ez ezik, gizarte izaerakoak ere abian jarri behar dira. **Aurreikuspen edo aurretiko plangintzak** utzarazteko modua du aztergai, kalteak saiheste aldera. Pertsona horien bizilekua da eta, bertan, beren ondasunak uzten dituzte. Horregatik, esku-hartzea berme batzuk beteta burutu behar da.

Jarduteko protokoloa eta udaltzainen esku-hartzea arautzen duen aurretiko planifikazioa egiteak eta larrialdietarako gizarte zerbitzuetara bidaltzeak udal jarduerak dituen bermeak gehiago errespetatzea ahalbidetuko lukete.

GUTXIENGO KULTURALAK

Ijito herria Europan denbora gehien bizitzen daraman gutxiengo kulturala da. Arartekoak arreta berezia ematen die pertsona horiei jasaten duten egoeragatik. Aipatu egoerak gizarteratzera zailtzen du. Erakunde guztiek -Europako, Espainiako eta lurraldeko erakundeak- gain hartutako konpromisoak betetzeari jarraiki ezarritako neurriak abian jar daitezela eta bete daitezela garrantzitsua da. Neurri horietako bat **Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako eta Gizarte Partaidetzarako II. Euskal Plana** da, gutxiengo kultural gisa eskubideak errespetatzea diezazkieten.

Arartekoak, batez ere, **eroldan izena ematearen eta etxebizitza bat eskuratzearen ondotik izandako zailtasunen** aurrean esku hartu du. Talde honentzat lana edo etxebizitza eskuratzea zaila da, besteak beste, jasaten duten bereizkeriagatik. Hori dela eta, gizarte zerbitzuetara jo behar izaten dute oinarrizko premiei erantzun ahal izateko. **Auzotarren ukoak eta beren egoera, premiak eta proiektuak komunikatzeko eta ulertzeko zailtasunek** ijitoek herri-administrazioarekin eta herritarrekin dituzten harremanak zehazten dituzte.

2009. urtean ijito herriari eragiten dizkieten kezak eta jarduerak udal eroldan izena ematea ukatzeari buruzkoak dira. Aurten, udal batzuek Arartekoaren gogoetak onartu dituzte eta udal eroldan izena eman diete aipatu pertsonari. Horrez gain, auzoak birgaitzeko prozesuetan parte hartu dugu. Adibidez, Sestaon burutzen ari den eta Abanto eta Zierbenan (Santa Juliana auzoan) egingo den birgaitzea. **Birgaitzeko prozesuek ijitoen bizileku baldintzak hobetzeko aukera ematen dute**. Hori dela eta, Arartekoak dio egokia dela egoiliarren gizarteratzea eta eskubideak aintzat hartzea.





GAIXO KRONIKOAK

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek ezinbestean erantzuna eman behar diete **berariazko premiak** dituzten gaixo kronikoei. Iraupen luzeko gaixotasunak eta, oro har, garapen motelekoak direnez, gehienetan **tratamendu** edo zaintza sendagarriak ez diren beste tratamendu edo zaintza batzuk oinarri dituen arreta eskatzen dute. Aipatu tratamenduak edo zaintzak pertsona horien **bizi kalitatea**

bermatuko duen ikuspegi soziosanitarioa du hizpide eta autonomiaren eta zaintzaren, narriaduraren prebentzioaren eta tratu eta aukera berdintasunaren bidez sustatzen da.

2009. urtean, pertsona horien eskubideak sustatzea xede zuen **Arartekoaren jarduerak honako alderdi hauek izan ditu oinarri:**

- EAEn gaixotasun kronikoa duten pertsonen **arreta soziosanitarioaren garapenaren** jarraipena egitea.

- EAEko buru osasunaren estrategiaren gaineko proposamena aztertzea. Aipatu proposamena **Euskadiko Buruko Osasun Aholku Batzordeak**, buruko osasunaren arloan aholkularitza teknikoa emateko organo aholku-emaleak, egin du.

- **Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko legearen aplikazioaren inguruko azterlan monografikoa** egitea. Lege berria buruko gaixotasuna duten pertsonengan edukitzen ari den eraginari eta ondorioei buruz Euskadiko Eri Psikiko eta Senide Elkartearen Federakuntzaren -FEDEAFES- iritzia bildu da, baita aipatu federakuntza osatzen duten elkarteena ere (AVIFES, ASAFES, AGIFES eta ASASAM). Horrez gain, Euskadiko Hartutako Kalte Zerebralaren Federazioaren ekarpenak eskuragarri izan ditugu. Arabako Buru Osasun Sareko Gizarte Lanaren Bulegoa-Osakidetzak Arabako Buru Osasun Sarean artatzen diren buruko gaixotasuna duten pertsonen araudi hori aplikatzeari buruzko informazio esanguratsua eman digu.

- Arartekoak Zamudio Ospitaleak antolatu zituen **buruko gaixotasun larriari buruzko jardunaldi** batzuetan parte hartu zuen, buruko gaixotasuna duten pertsonak gizarteratzerakoan gizarteak duen egitekoa hizpide zuen ponentziarekin.

- **Osakidetzako Buru Osasun Sarearen egoeraren jarraipena** egitea.





EZGAITASUNEN BAT DUTEN PERTSONAK

2008ko maiatzean **Ezgaitasunen bat duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioa** indarrean jartzeak ezgaitasunaren tratamenduan aldaketa esanguratsua ekarri zuen. Ikuspegi juridikotik, tratamendua hobetzeko bidea eman du, baita ezgaitasuna, gizarte eruedetara eta aniztetera egokitzeko ikuspegitik, jorrazeko modurako ere. Horren harira, **ezgaitasuna giza eskubideen esparruan** kokatu du. Hori dela eta, Arartekoak esparru horretan duen egitekoak **benetan betetzen ote den bermatzea du xede**, bai botere publikoek zuzendutako jardueretan baita barne zuzenbidean egiazki ezartzeko nahitazeko aldaketak bideratzeko beharrezko proposamenak egiterakoan ere.

Gure gizartean jaso diren aurrerapenak gorabehera, antzeman dugu **erabateko berdintasuna lortzeko oraindik asko dagoela egiteke**. Gizarte politikaren esparruan batzuetan ezin dira alde batera utzi ezgaitasunen bat duten pertsonen eskatutako **laguntzak eta prestazioak** eskuratzeko dituzten trabak, arauetan xedatuta dauden egoerak jazotzen ez direlako edo eskatzen dituzten berariazko premiei behar bezalako erantzuna ematea bermatzen duten baliabiderik ez dagoelako.

Hezkuntza eta prestakuntza aukera berberekin ematea da sistemaren funtsezko beste zutabeetako bat ezgaitasunen bat duten pertsonak bete-betean eta modu aktiboan garatu eta gizarteratu daitezten. Hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza errealitatea aipatu xedea lortzeko oraindik urrun dago **makina bat trabagatik** hain zuzen: ikastetxeetan dauden traba arkitektonikoak; langilerik edo laguntza emateko neurririk eza, etab.

Horrez gain, 2009. urtean, **udal kontrolik eza** hizpide duten kexak aurkeztu dira, hain zuzen, jarduera berriak ezartzerakoan, merkataritzako lokaletan edo horiek eraberritzerakoan, **traba arkitektonikoak kentzeko araudiaren betetzearen inguruan**.

EMAKUMEEN BERDINTASUNA ETA OSOTASUNA

Ararteko erakundeak emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde egiten du lan. Horretarako, oinarritzat hartzen du gure gizarteko hainbat ingurunetan nagusi dela oraindik benetako desberdintasuna, sexuagatiko berdintasun printzipioa formalki onartzea orokortu bada ere. Tamalez, egungo gizartean emakume asko dira oraindik pertsonen eskubideen gehienezko urratzearen, alegia, emakumeen bizitzaren eta osotasun fisiko eta moralaren aurka eraso egiten duen **indarkeria sexistaren** biktima.

2009. urtean, genero indarkeriaren biktima diren emakumeek **etxebizitza eskuratzeari** buruz sustatutako kexa batzuen ondotik esku hartu dugu. Egoera horiek aztertuta, uste dugu herri-administrazioek genero indarkeriaren biktima diren emakumeei eragiten dieten etxebizitzaren arloko espedienteak alabaist lasterren izapide ditzala beharrezkoa dela, emakume eskatzailearentzako **arisku objektiboko egoera jazotzen bada**.

Testuinguru orokorrako batean, zenbait administrazioaren aurrean esku hartzeko beharra antzeman dugu, **genero indarkeriaren biktima diren emakumeen egiaztapenari dagokionez**; hori guztia etorkizunean emakume horiek langile publiko baten aurrean bizi izandako indarkeria egorari buruzko gertakariak aditzera emateko beharrean egon ez daitezten. Horrez gain, **lanbidea eta familiako bizitza bateratzeko** arloan izapidetutako makina bat kexa gailendu nahi ditugu. Aipatu kexen berri jarduerak izeneko atalean emango dugu.



ADINEKOAK

Adinekoek oso talde heterogeneoa eta geroz eta handiagoa osatzen dute. Aipatu pertsonak gizarteari egindako ekarpen garrantzitsua, baita senideak zaintzen eta laguntzen burutzen duten egiteko ukazina ere, adineko horien parte hartzea ahalbidetzen duten eta zahartzaroa ahalmenenez edo gaitasunez beteriko bizi etapa gisa agerian jartzen duten politiken garapenean jaso behar dira; gizarte aldaketarako bidea eman duten eta adinekoei merezi



duten gizarte esku-hartzerako eta solaserako protagonismoa eta gaitasuna ematen dieten politikak. 2009. urtean, gure jarduerak honako alderdi hauek jorratu ditu:

- Adinekoen eskubideei eta tratu txarren prebentzioari buruzko azterlana egitea eta argitaratzea.
- Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko legearen eragina aztertzea. Horretarako, honako hauen partaidetza izan dugu: Bizkaiko Adinekoen Kontseilua, HARTU-EMANAK; Alzheimerra duten Gaixoen Senideen Elkartearen Euskadiko Federazioa eta Mendeko Adinekoen Familia Zaintzaileen Arabako Elkartearen (ASCUDEAN).
- Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Gaietako Sailak burututako jardueren jarraipena egitea, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko legea batera dadin.
- Adinekoen arreta sozio-sanitarioaren garapenean jarraipena egitea.
- Egoitzetan grebak egitearen ondotik, sortutako gatazkak bideratzeko esku-hartzeak.

LESBIANAK, GAYAK, BISEXUALAK ETA TRANSEXUALAK

Arlo honetan, Arartekoak lesbianen, gayen, bisexualen eta transgenero edo transexualen berdintasunaren eta berezikeriarik ezaren alde egiten du lan. Hala, orientazio sexuala edo genero identitatea dela-eta berdintasunerako eta berezikeriarik ezarako eskubideen urratzeak kontrolatzen dira eta pertsona horien eskubideak aintzat hartzen dituzten erakunde publikoen eta EAEko gizartearen babes kultura sustatzen da.

2009. urtean, transexualak ere hizpide izan ditugu, talde horrek ez baitu berriazko arreta instituzionalik jaso orain arte. Ildo horretan, honako izenburua duen txosten berezi hau amaitu dugu: "Transgeneroen eta transexualen egoera Euskadin".

Horrez gain, transexualentzat izan ohi den **sexua berresleitzeko ebakuntza kirurgikoa** hizpide zuten bi kexa nabarmendu nahi ditugu. Aipatu kexek euren artean lotura daukate. Kexa batean, Osakidetza aipatu prestazioa emateko beharraren berri eman zaigu, kontuan hartuta Osasun eta Kontsumo Kontseilaritzak jendaurrean eta esplizituki adierazi zuela aipatu prestazioa gain hartuko zela. Beste kexa batean, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo egindako ebakuntza kirurgikoen laguntza kentzeko aukera salatu zen -azken hori Eusko Jaurlaritzako egungo Lan eta Gizarte Gaietarako Sailaren aldetik-. Eusko Jaurlaritzak finantzatzen zituen laguntzok orain arte. Halaber, transexualen elkarte batek egindako kexa izapidetu dugu eta, horren bidez, Donostiako udal kirol instalazio batzuetako aldageletan **intimitaterik ez** dagoela salatu da. Sexua berresleitzeko prozesua oraindik amaitu ez duten transexual batzuentzat traumatikoa eta umilia-garria da beste pertsona batzuekin aldagelak eta dutxak partekatzea eta, ondorioz, banakako kabina eta dutxa erabili behar dituzte aldatu eta dutxatzeko.





GIZARTE BAZTERKERIA LARRIAN DAUDEN PERTSONAK

Gizarte bazterkeriaren aurkako borroka gizarte balibideak eta programak ugaritzeaz gain, aipatu bazterkeria eragiten duten **kausei buruzko analisisa eta hausnarketa** behar ditu, baita gizarte berean bi herritar talde egotea saihesten duen konpromiso serioa ere -talde batek eskubideak baliatzen ditu eta besteak, aldiz, ez-. Horren harira, jaso ditugun kexek **gizarte prestazioen beharra eta prestazio horiek eskuratzeko zailtasunak** dituzte hizpide, hain zuzen, bizileku independentea edukitzeko betekizunak ez betetzeagatik edo udal erroldan izena emanda ez edukitzeagatik. Halaber, prestazioak ukatu, kendu edo iraungi izana dute hizpide. Horrez gain, aurten etxerik gabeko pertsonentzako balibide baten kokalekua dela eta auzotarren ukoaren inguruan esku hartu dugu. Herri-administrazioek kokalekua planifika dezatela eta gizartearen eratzuna eduki dezaketean balibideak abian jartzeari lehentasuna eman diezaiotela garrantzitsua da; hori guztia **taldea irain edo laidozta ez dadin**.

Horren ildotik, 2009. urtean **bi txosten bereziren** betetze mailari buruzko jarraipena egin dugu: etxerik gabeko pertsonen eragiten diena eta gizarte ekintza arloko hirugarren sektorearen lan-baldintzena. Abian jartzen diren programa eta balibideetan osasun arreta jasotzeko beharra da etxerik gabeko pertsonen arazo esanguratsuenetako bat. Hori dela eta, beste txosten bateko gomendioen betetzeak zer garrantzi duen gogora ekartzeko garrantzitsua da: arreta soziosanitarioarena. Gizarte bazterkeria larrian dauden pertsonen **premier arreta integrala eta jarraitua behar dute, gizarteratzea bidera dadin**. Horregatik, administrazio eta erakunde publikoek elkarrekin lan egin dezatela, koordinatu daitezela eta modu transbertsalean jardun dezatela funtsezkoa da; hori guztia gizarteratzea errazteko eta gizarte bazterkeria larrian dauden pertsona kopurua handi ez dadin.

ESPETXERATUAK

Askatasuna kentzeak askatasuna kendu zaien pertsonen **desozializazioa eragiten die** eta osasun, hezkuntza, gizarte ongizate eta lan sustapen zerbitzuen sare normalizatu eskuratzeko aukeretan zailtasunak dakartza.

Presoen sustapenean eta gizarteratzean lan egiten duten gizarte ekimeneko erakundeekin harreman estua dauka Arartekoak. Aipatu presoen testigantza funtsezkoa da espetxeetako egoera ezagutzeko. Egoera hori jasotako kexekin eta espetxe administrazioarekin izan genuen elkarrekintzatik ateratako ondorioekin egiaztatu dugu.

Arrazoi humanitarioen ondotik espetxeetako zuzendaritzen aurrean burutu genituen **gestio zuzenek**, nagusiki, **lekualdatzeak eta zigorrak** izan dituzte hizpide, jada burutu diren gizarteratzeko prozesuei edo familia bat harremanetan egon zedin aukerei eragiten baitie -azken hori dela bisiten edo espetxean gune komunitara sartzeko aukeraren bitartez-.

Horrez gain, espetxe administrazioaren aurrean esku hartu genuen, familia komunikazioetara delitu jakin batzuk egotzi zaizkien pertsonekin joaten diren pertsonen egindako **araketei eta gorputz miaketei buruzko irizpide** berriei dagokienez. Batzuetan, "eskuz egindako araketa" jasan behar izaten dute, bisita bestela ukatu egiten baita. Banakako arrazoi egiaztatutako egon behar dira eta ez da nahikoa, oro har, segurtasun arazoak aipatzea, bisita bat dagoen bakoitzean halako araketa bat egin behar izateko.

Espetxe arloko eskumenak besterendu gabe jarraitzen duten arren, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek aipatu pertsonen kudeatzen dituzten zerbitzuak emateko, ahal dituzten jardun gehienak bideratu behar dituztela gailendu dugu. Aurten, honako gai hauek jorratu ditugu: **gaixotasun larriak edo sendaezinak** dituzten pertsonen arazoak, **droga-mendetasuna duten** presoen emandako arreta, **komunitatearen onurarako lanak** garatzerakoan gizartearen eta erakundeen konpromisoa eta espetxeetan emandako **arreta psikiatrikoa**.





ADINGABEAK: OSO TALDE AHULA

2009. urtean, Arartekoaren 20. urteurrena izateaz gain, adingabeen defentsarako nazioarteko baliabide nagusia-rena ere izan da: Nazio Batuen Erakundeak 1989. urtean onartu zuen **Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa**.

Bereziki zaugarria den herritarren sektore honi lehentasuna ematen jarraitzeko beste eragile bat izan da hori, hain zuzen, era askotariko ekimenen bitartez:

- Adingabekoei balioak transmititzea, EAEko erakundeek nerabeen droga kontsumoaren inguruan duten egitekoa edo bakarrik dauden adingabe atzeritarrei emandako erakunde erantzuna hizpide duten **txosten berezi berriak eta ikerketak egitea**.

- **Material didaktiko berria** egitea eta ikastetxeetara bidaltzea, Konbentzioaren edukia zabaldu eta eskubideen kultura plazaratzeko aldera.

- Babesik gabeko egoeran edo arrisku egoera larrian dauden adingabeen arreta emateko harrera **zentroetara eta baliabideetara bisitak** egitea.

- EHUren udako ikastaroen esparruan, haurrak babesteko sistema aztertzea oinarri duten **jardunaldi batzuk** antolatzea.

- **Bereziki larriak diren arrisku egoera batzuei buruzko jarraipena:** nerabe etorkinak eta famili babesik gabekoak; adingabe arau-hasleei arreta ematea; buruko osasun arazo larriak dituzten adingabeak; hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen eskolatzea; gatazka egoerak edo eskolako jazarpena...

- Adingabeen beste defentsa erakunde batzuekin harremanetan egotea eta **esperientziak trukatzeko**.

- Haurrekin edo haurren eskubideak defendatzen **lan egiten duten elkarteekin lankidetzara lana**.

- **Gizarte arazo eta erreazio jakinen aurrean iritzi publikoa ematea**, adibidez, jokabide arazoak dituzten nerabeentzako baliabideei buruz.

- **Ofiziozko kekek eta jarduerak**, batez ere, hezkuntza, babes, gazte justizia eta osasunaren arloan.

Adingabekoei **balioak transmititzea izeneko txostena** azpimarratu behar da, ematen dituen datuengatik eta eragindako eztabaidengatik, azken batean, txostenaren garrantziagatik. Hori guztia aipatu txostenean aztertu diren oinarriko balioak (desb erdintasuna onartzea, indarkeria gaitzestea, ingurumena zaintzea...) eta aztergai izan den adin tarte zabala (8 eta 16 urte bitarteko haurrak eta nerabeak) aintzat hartuta.

TALDE TERRORISTEN BIKTIMAK

Eusko Legebiltzarrari "**Euskadin terrorismoaren biktimei erakundeak emandako arreta**" izena duen txosten berezia ematea izan da 2009. urteko jarduera nagusia. Aipatu txostenak erakundeak bi urte baino gehiagoko terrorismoaren biktimei egoerari buruz egindako lana bildu du. Txostena asmo handikoa da eta kontua zenbait ikuspegitik jorratu du. Horren harira, aipatu ikuspegiak garrantzi handiko ekainaren 19ko 4/2008 Legeak biktimei onartu zizkien eskubideen bidez egituratu dira: **parte hartzeko, duintasunerako, ordain moralerako, justiziarako, egjarako eta memoriarako eskubideak**. Halaber, osasunaren, hezkuntzaren, etxebizitzaren, enpleguaren edo prestakuntzaren arloan terrorismoaren biktimek ordain pertsonala eta materiala jasotzeko duten eskubidea aztertu da.

Pertsonen esparrurik hurbilena izatearen ondotik, Euskal Autonomia Erkidegoko udalek terrorismoaren biktimei egoerari emandako erantzuna hizpide duen kapitulua aipatu behar da.

Txostenaren **berritasun handia** Euskadin mehatxu edota derrigortze terroristen biktimei egindakoa -gertakari horri **jazarpen indarkeria** deitzen zaio-hizpide duen kapitulu bat dagoela da. Bertan, jazarritako taldeen kide diren pertsonen biktimazio esperientziak aztertu dira: epaileak, fiskalak, guardia zibilak, polizia, ertzainak, espetxeetako funtzionarioak, kazetariak, ordezkari demokratikoak, militarrik edo irakasleak. Gutxiago ezagutzen den baina oso gogorra den errealitatea da.


Azkenik, herri-administrazioei indarkeria terroristaren biktimei egoerari **erantzun hobea** emateko gomendio batzuk helarazten zaizkie.

FORU ALDUNDIEK BABESIK GABEKO EGOERAN DAUDEN ADINGABE ATZERRITARRAK BABESTU ETA ZAINDU BEHAR DITUZTE

Arartekoak makina bat aldiz esku hartu du bakarrik dauden adingabe atzerritarren egoeraren ondotik. Atzerritarrak izateari adingabeak izateari baino arreta gehiago emateak **erakundeen defentsa jarreretakoko bidea ematen du, adingabe asko lurraldera etorriko diren beldur baitira.** 2009. urtean hiru foru aldundiak babesia eman dieten adingabe kopurua ez da lehen bezainbeste handitu. Datu hori garrantzitsua da, eragileak batzuk izan baitaitezke. **Burutu ditugun esku-hartzeek honako honekin zuten zerikusia:**

- **Agiri adina eta proba medikoa** oinarri hartuta aterakoa **bat etorri ez izanaren ondorioak.**
- Adingabeen **eskubideak urratzea**, hala nola, hezkuntzarako, defentsarako eta entzun diezaieten eskubidea.
- Adingabeak babesteko **zentroen kokapenen aurka** daude herritarrak.
- Autonomia erkidegoen artean bakarrik dauden adingabe atzerritarren **lekualdatzeak kontrolatzeko zailtasuna.**
- **Tutoretzak gain hartzeko** eta egoitza baimena eskatzeko betebeharra ez betetzea.
- **Egoitza harreraren mugak** beste figura batzuen aurrean, hala nola, familia harrera.

Arazoen artean **agiri adina eta proba medikoa oinarri hartuta ateratakoa bat etorri ez izana** gailendu da. Horrekin batera, adina zehazteko proben zehaztasunik ezak, pasaporteen egiazkotasunari buruzko zalantzek, EAEko hiru fiskaltzen irizpide aniztasunak eta aldaketek... kexa asko eragin dituzte hiru foru aldundien jardueren aurrean, babesik gabeko egoeran dauden gazteen tutoretza etetea edo gain ez hartzea baitakar.



Arartekoak adingabeen eskubideekin **bat datozen jarduteko protokoloak bideratu behar direla eta adina zehazteko probak behar bezalako bermeekin egin behar direla esan du.** Azken horrek, batez ere, Arabari eragion dio. Aipatu probintziak adingabeak zirela zioten egiaztagiriak zituzten gazteen tutoretza ez du gain hartu eta foru aldundien betebeharra da babesik gabeko egoeran dauden adingabe atzerritarrak babestu eta zaintzea.



DEBAKO OILUR ZENTROA

Gipuzkoako Foru Aldundiaren tutoretzapean dauden adingabe atzerritarrak Debako Oilur Zentrora bidali izana eta jarrera edo jokabide arazoak dituzten gazteentzako programa espezializatua abian jarri izana aztertzea Arartekoak bideratu duen esku-hartze bat izan da.

Arartekoaren jardura amaitutzat eman zuen ebazpenean, besteak beste, **adingabeen eskubideen urratzea**, hala nola, entzun diezaieten eta hezkuntzarako eskubideak, aztertu zen. Horrez gain, adingabeak programa espezializatu batetara bidaltzearen inguruan indarrean dagoen araudiaren betetzea aztertu zen.

Halaber, **ihes egin zuten adingabeen tutoretza eteteko erabakia aztertu zen** eta, horren ildotik, uste genuen ordura arte hartu ziren erabakiak ez zirela egokiak izan. Zentroa kudeatzeko baldintzetan ez ziren adingabeen eskubideak errespetatzen, ezta aipatu gazteen gizarteratzea eta laneratzera ahalbidetzen ere.

Horrez gain, zentro horrek ez du taldearen irudia hobetzen edo estereotipoak ezabatzen lagundu. Gipuzkoan adingabe atzerritarrei laguntza emateak dakarren arazoetako bat da **gazte horien gizarteratze prozesuari eta gizarte bizikidetasunari on egiten ez dion gizarte kezka sortu** dela. Horren ondorioz, adingabeen eskubideak hizpide ez dituzten eztabaida politikoak piztu dira. Aipatu zentroa 2009. urtearen amaieran itxi zen eta programa eta helburuak egokitzea aurreikusi da; hori guztia egokitzat jo dugu.

ENERGIA EOLIKOAREN LURRALDEAREN ARLO PLANAK ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAN DUEN ERAGINA

Elkarte ekologista batzuek esan digute kezkatuta daudela Euskal Autonomia Erkidegoko Energia Eolikoaren Lurraldearen Arlo Planak (LAP) Arabako Lurralde Historikoan izango duen eragina dela eta. Hain zuzen, **Natura 2000 Sarearen babestutako guneetan** -hala nola, Arkamo, Iturrieta eta Cruz de Alda- **parke eoliko batzuk eraikitzea aurreikusi baita**. Ildo horretan, uste dute zentral eoliko horiek eragin ekologikoa sortuko dutela eta kritikotzat jotzen duten dimentsioaren biodibertsitatea galduko dela. Hortaz, Lurraldearen Arlo Plana berraztertzeko eskatu dute, beren ustez, beharrezkoa baita egokitzapena eta eguneratzea eta ingurumen balio txikiagoa duten eremu gizatiarragoetan leku berriak ezartzea.

Horrez gain, egiaztatu genuen zenbait erakundek Eusko Jaurlaritzara jo zutela Lurraldearen Arlo Plana berrazter zedin eskatzeko. Izan ere, aipatu plana onartu zenetik sei urte baino gehiago igaro zirela kontuan hartuta, iruditu zitzaien plan hori zaharkitua zegoela, baita, **lekuak proposatu zirenetik 10 urte igaro zirela aintzat hartuta, aipatu lekuak baliabide berriekin eta ondoren onartu-**

tako ingurumen araudiarekin bateraezinak zirela ere. Ondorioz, Eusko Jaurlaritzak adostasun mailarik handiena lortzeko eta lehentasuneko bi ingurumen helburu bateratzeko konpromisoa hartu du: Euskadirentzat **energia berriztagarriaren iturria garatzea** eta **biodibertsitatea** eta, batez ere, Natura 2000 Sarearen eremu naturalak **zaintzea**.

FAMILIA INGURUNeko ZAINKETARAKO PRESTAZIOEK ERLIJO ELKARTEETAKO KIDEAK ERE BARNE HARTU BEHAR DITUZTE

Erljio elkarte bateko kide den pertsona batek mendetasun egoeran dagoen elkarteko beste kide bat zaintzen zuela jakinarazi zigun. Hori dela eta, **Mendetasunari buruzko Legean jasotzen den familia inguruneko zainketarako prestazio ekonomikoa jaso nahi zuen**. Ordea, ezin izan zuen, zaintzailearen eta zaintzen zuen pertsonaren artean ez baitzegoen familia harremanik terminoaren adiera zibilean. Egoera hori bidegabera iruditu zitzaion.

Izan ere, mendetasun egoeran dagoen pertsona "etxean" (kasu honetan, komentuan) ari zen arreta edo laguntza jasotzen, hain zuzen, "familiaren" -elkarteko kideak- aldetik. Horren ildotik, uste dugu **familia baten**

ezaugarri guztiak biltzen dituztela elkarte horiek: bizikidetasun jarraitua, elkarri laguntzea; unitate ekonomiko bakarra dira, dauden baliabideak partekatzen dituzte, familiazat jotzen dute beren burua eta hala jarduten dute, etab. Beraz, familia ingurunea osatzen dutela uste dugu eta, hala, zainketa edo laguntza behar duenak berdinduz jasotzen ditu. Hori da, hain zuzen, prestazioaren xedea, aipatu prestazioa arautzen duen araudiaren arabera. Horrez gain, klusurako elkarteak direnean, zentroan ezin da sartu zentrokoa ez den beste pertsona bat. Horren ondorioz, mendetasuna duen pertsonak ezin du kanpoko zerbitzu batetara joan (eguneko zentroa, egoitza, etab.) eta komentuan ezin du zaindu elkartekoa ez den beste pertsona batek, ezta familia zibilak ere.

Horregatik guztiagatik, **Arartekoak familia kontzeptuaren adiera edo interpretazio zabala sustatzen du, prestazio horrek erlijio elkarteak barne har ditzan**. Gipuzkoako Foru Aldundiak aurreko arautzea berraztertu zuen eta erlijio elkarten berezitasuna aintzat hartzen duen eta "erlijioso batek elkarteko beste kide bat zaintzen duenean" prestazioa eskura dezan aukera ematen duen arau berria onartu zuen.



BABES PUBLIKOKO ETXEBIZITZEN PARKEAREN BARRUKO BIDEAK

2009. urtean hainbat kebaren berri izan dugu babestutako etxebizitzaren esleipendunen eskutik. Pertsona horiek **etxebizitza aldaketa proposatu zuten, bizikidetasun unitateko kideak ugaritu zirelako.**

Seme-alabak jaiotzearen ondotik eta etxebizitzak logela bakarra zuela aintzat hartuta, administrazioari etxe aldaketa eskatu zioten erreklamatzailuek. Ordea, Etxebizitza Sailaren ustez, ezin zituzten eskaerak onartu, “babes ofizialeko etxebizitzaren parkearen barruko bideak” **erregulatzen dituen arautegiaren arabera, aldaketarako eskubidea pertsonako 15 metro koadroko erabilgarriko ratioa betetzen ez duten bizikidetasun unitateak direnean bakarrik baliatu ahal izango baita.**

Arazoa, ordea, ez zen dimentsioa, etxebizitzaren banaketa baizik. Egia honako hau da: pertsonako 15 metro koadroko erabilgarri baino gutxiagoko ratioa duten kasuetan izan ezik, **administrazioak ez du aurreikusi babestutako etxebizitzaren onuradunen premiak alda daitezkeenik:** ezaugarri desberdinak dituen etxebizitza (tamaina edo banaketa), baita EAEko beste lekuaren batean egotea ere, familia unitatearen osaera eta berezitasunak aldaezinak bailiran.

Laburbilduz, berriz ere agerian jarri da “**babes ofizialeko etxebizitzaren parke barruko bideak**” **deiturikoei araudi eskasa dutela** eta, beraz, Arartekoak “Gazteentzako etxebizitza politika publikoak EAEn” txosten berezian emandako gomendioa guztiz zilegi dela. Horren bidez, EAEko herri-administrazioei “**beharrezko neurriak har zitzaten, etxebizitzaren parkearen kudeaketak familia unitatea egitura aldakortzat har zezan**” eskatu genion.

KULTURA ONDAREAREN BABESA: GALLARTAKO BODOVALLE MEATEGIA

Euskal Autonomia Erkidegoko Meategiaren Museo Fundazioak **meategien kultura parkea** eraikitzea proposatu zuen. Hala, eraikin berria eta begiratokia eraikitzea aurreikusi da eta, bertatik, ebakiak 250 metro sakonera duen **Gallartako Bodovalle meategiaren gainean eskaintzen duen paisaia** ikusgarriaz goza daiteke. Hondoan itsaso maila baino 38 metro sakonago dago. Fundazioak kebaren bidez meategi ustiategi honen etorkizunari eragiten dioten aurreikuspenen gaineko kezka helarazi zigun. Meategia egun itxita dago. Ustiategiko titularrek betetze lan partzialak egingo dituztela aurreikusi dute, hain zuzen, itsasoaren mailatik 48 metro goragora arte.

Fundazioak uste du ebaki horrek uka ezin daitekeen **kultura eta paisaia interesa** duela. Hori dela eta, Fundazioak 2003. urtean Eusko Jauriaritzako Kultura Sailera jo zuen hizpide dugun elementua, kultura ondasun sailkatu gisa, euskal kultura ondarean sar zedin eskatzeko. 2008. urtean, Kultura Ondarearen zuzendariak jakinarazi zion kultura intereseko ondasuntzat jotzeko proposamena aztertzeko aurretiko lanak hasi zirela. Ordea, ez da espedienterik hasi. Hori dela-eta gure esku-hartzea eskatu zuten, **ahal bezain azkar babes erregimena ezar dadin**, ebakiaren gaineko lanak saihesteko, besteak beste, betetzea. Haien ustez babestu beharreko ondasuna kaltetuko luke horrek eta meatzaritzari buruzko parke kulturaren proiektuari funtsa kenduko lioke.

Kultura Sailak jakinarazi digu, **konplexutasuna aintzat hartuta, beharrezkoa dela denbora tarte bat, Bodovalle ebakiaren aldeko babes espedientea hasteko balioko duten azterlan eta txosten egokiak amaitu daitezen.** Hori amaitu ondoren, kalifikazio espedientea hastea aurreikusi da.



HEZETASUNAK ETA UHOLDEAK ETXEBIZITZETAN ETA GARAJEETAN

Santurtziko auzokideen elkarte batek kexa bat aurkeztu zigun, hiriko zona horretako estolderia sarearen egoera txarraren ondotik, **etxebizitzetan eta garajeetan aldizkako hezetasunak eta uholdeak** pairatzen zituztelako. Antza, estolderiak itxita zeuden, ezin zuten aldapatik behera zetorren ura xurgatu eta aipatu ura etxebizitzaren blokean sartzen zen. Euri bortitzekin arazoa larriagotu egin zen.

Horren harira, **Santurtziko Udalari makina bat erreklamazio aurkeztu zizkioten** eta, pairatzen zuten arazo larriaren konponbidea eskatzeko, udal arduradunekin bildu ziren. Ordea, neurriak hartzeko asmoa egon arren, aipatu neurriak ez ziren burutu eta arazoa larriagotu egin zen.

Hala, udalarekin harremanetan jarri ginen informazioa eskatzeko eta **auzokideen komunitate horri eragiten zion arazoari irtenbidea emateko neurriak** har zitzan eskatzeko. Santurtziko Udalak erantzunean adierazi zuen komunitatea kokatuta dagoen eremua urbanizatzeko obrak ez zirela entregatu eta enpresari zenbait alditan zonaren urbanizazioak zituen akatsak konpon zitzan eskatu ziola. Enpresa horrek behin baino gehiagotan ez zituen bete errekerimenduak. Hori dela eta, **hirigintzako diziplina jarduerak** hitzartu ziren. Azkenean, enpresak akatsak konpontzeko epe laburrean burutuko zen proiektua aurkeztu zuen.



© EITB



ANBULANTZIE TAN EGINDAKO LEKUALDATZEAK ATZERAPENEN ZIOAK

Osasun-garraioaren erabiltzaileek garraio horren funtzionamenduari buruzko kexak aurkeztu dituzte. Gehienetan, aldian-aldian ospitaleetara joaten diren gaixoen lekualdatzei buruzkoak dira eta garraioak, oro har, **iristeko izaten duen atzerapenak errehabilitazio sasioak atzeratzea edo galtzea dakarrela adierazi dute.**

Ohiko komunikazio bideak, errepideak, erabiltzen dituen zerbitzua denez, argi dago trafikoa aztoratzen duten egoerek nahitaez zerbitzu honengan eragin dezaketela. Ikuspegi horretatik, ezinezkoa da esatea, aurreikusi ezin daitezkeen faktoreekin lotuta dagoen zerbitzuak ez duela horien eraginik pairatuko, esaterako trafikoko dentsitatea. Hala ere, zentzuzkoa da, kalte horien iturria ambulanzien zerbitzua emateko sinatutako **hitzarmenean ezarritako baldintzak ez betetze**tik ez izatea; edo hitzarmeneko baldintzak berrikustea, arazoa bere hartan balego.

Kalte horrez gain, gaixo horiei beti konpontzen ez zaien beste arazo bat planteatu da: **etxera itzultzeko itxaron behar duten denbora luzea**, batzuetan ez baitute ambulanzia esleitua izaten. Hori dela eta, beharrezkoa da kalte horien zioak egiaztatzea, baita osasun-garraioa etxera itzultzeko esleipenarekin izapidetzeko aukera ere.

PIRRITX ETA PORROTX PAILAZOEN KONTRATAZIOA

Elkarte batek Pirritx eta Porrotxok pailazoaren kontratazioari buruzko kexa aurkeztu zuen Ararteko erakundearen. Adierazi zigutenari jarraiki, Popularren Udala Taldeak egindako proposamenaren ondotik -aipatu proposamena Bilboko Udaleko osoko bilkuran aurkeztu zen-, alkateak, mozioa ken zedin eta eragindako udal arloek kontua azter zezaten eskatu ondoren, adierazpen publiko batzuk egin zituen.

Bertan, udalak aipatu **pailazoak kontratatuko ez zituela adierazi zuen** eta, ondorioz, aurreikusita zegoen jardueraren baten kontratazioa eraginik gabe geratu zen.

Erreklamaziogileen arabera, jarrera hori jardueraren arbitrarioa zen eta **ez zuen babesik administrazio diskrezionalitatean**. Udalarari informazioa eskatu eta erreklamaziogileek emandako materiala eta agiriak aztertuta eta ondorioak atera ondoren, udalarari jakinarazi diogu profesionalen proposamen artistikoekin eta aipatu profesionalen curriculumaren edukiarekin zerikusia duten irizpideak bakarrik hartu behar dituela aintzat eta **ez dela onargarria kontratazio publikoaren legezko betekizunak betetzen dituzten profesionalak herritar gisa dituzten ideia, jardueraren eta jokabideengatik baztertzea**.

Artistek hurrekin egiten duten lanaren jardun zabalari eta ikuskizunaren edukiarri dagokionez, uste dugu **artista horien ikuskizunetan ez direla giza eskubideak gutxiesten**, aipatu eskubideak errespetatzeko balioak sustatzen direlakoan baigau.

LANBIDEA ETA FAMILIAKO BIZITZA BATERATZEA

Urte honetan **lanbidea eta familiako bizitza bateratzea** hizpide zuten makina bat kexa izapidetu ditugu.

Zehazki, seme-alaba adingabeak zaintzeko ardura hartuko zuen pertsona bat kontratatzeko laguntza jasotzeko ezintasuna planteatu zuen kexa horietako batek, zaintzaileak haurraren gurasoren batekin ahaidetasun loturarik bazuen. **Senideek kontratazio**



faltsuen ondotik laguntzak ez jasotzea zuen xede debeku horrek. Esku artean dugun kasuan, haurraren amaren ahizpa zen. Aipatu amaren ustez, ahizpa alaba zaintzeko pertsonarik egokiena zen eta, hala, haurraren amak berme eta segurtasun gehiagorekin batera zitzakeen lana eta bearen premien arreta ona.

Horren harira, Eusko Jaurlaritzari ideia bat mahaigaineratu genion, hain zuzen, kasu horietan **laneko lotura iruzurrezko kontratazioa ez dela bermatzen duten nolabaiteko betekizunak** egiaztatuz -hala nola, enplegatzailea eta langilea helbide desberdinetan erroldatuta egotea, Gizarte Segurantzaren alta ematea, etab- froga dadila.

Lan eta Gizarte Gaietako Sailaren erantzuna positiboa izan zen eta, aurrerantzean, egiaztapen hori onartuko du, senideen kontratazio mota horien gainean orain arte zegoen iruzur presuntzioaren aurka.

ERROLDAN IZENA EMATEKO PERTSONA BATZUEK DITUZTEN ZAILTASUNAK

La Arboleda auzoko ijito familia bati udal erroldan izena ematea ukatzearen ondotik, Arartekoak esku hartu zuen. Polizi kausak edukitzea eta auzotarrak aurka egotea hala jarduteko alegatu ziren arrazoiak ziren. Errentamendu erregimenean etxebizitza bat esleitzeko erabakiak auzotarren ukoa eragin zuen.

Tartean zeuden administrazioen artean arazoari irtenbidea ematen saiatu ginen (zenbait bilera deitu ziren) eta La Arboleda auzoko auzotarrek bildu ginen. Aipatu auzotarrek esan ziguten **kezkatuta zaudela eta bizikidetasuna eta herritarren segurtasuna hondatzeko beldurra zeukatela**. Horren ildotik, berriro bizilekua emateko prozesua eta Trapagarango Udalaren jarduna aztertu genituen. Eusko Jaurlaritzak araudian jasota dagoen salbuespen prozedura baliatuta esleitu zion etxebizitza familia bati. Familia hori Sestaon bizi zen, baina ez zuen etxebizitzarik aipatu udalerrian bizi ziren etxebizitzaren hirigintzako aurri deklarazioa egin ondoren.

Hala, aztertu ziren alderdi garrantzitsuen artean honako hauek daude: **erakundeen erantzukizun politikoaren printzipioa, datuak babesteko eskubidea, udal erroldan izena emateko legezko erregimena eta pertsona bat auzo edo udalerrri jakin bateko auzotarra izan dadin aukeratzeko eskubidea** edo ahalmena egotea. Ildo horretan, auzotarrek entzun diezaieten eta auzokideen arteko bizikidetasuna hobetzeko neurriak proposatuz



parte hartzeko eskubideak dituzte. Ordea, familia bat auzoan bizi dadin ezin dute galarazi. Bizilekua libreki aukeratzeko eskubidearen muga bakarrak jabetza pribaturako eskubidearen eta, interes orokorrari jarraiki, lurzoruaren erabileraren ondoriozkoak dira.

Azkenik, auzotarrek bizikidetasuna hondatzearen inguruan duten kezkari eta beldurrari erantzuna eman behar zaie baina ordenamendu juridikoa urratu gabe. **Auzotarren ukoaren ondotik oso gertakari larriak gertatu ziren. Hori dela eta, zigor eginbideak ireki ziren.**

ABANDONATUTAKO ANIMALIAK JASOTZEKO ZERBITZUA EMATEKO BETEBEHARRA

Kexa batzuen bidez jakinarazi zaigu administrazioek ez dutela jardunik **bideratzean aske dauden edo abandonatuta dauden animalia** batzuek eragindako gertakarien aurrean. Administrazio eskudunari eskatu behar zaion nahitaezko kontrola da kontua, hain zuzen, udalerrietan libre dabilzan edo abandonatuta dauden animalien inguruan.

Animaliak babesteari buruzko legeak udalaren



eskumena jasotzen du animalien jabeek edo edukitzaileek dituzten betebeharrak betetzen ote diren kontrolatzeari eta ikuskatzeari dagokionez. Lege horren arabera, ezin dira animaliak abandonatu; hau da, jatorriaren eta jabearen berri ez daramaten animaliak eta pertsona batekin ez daudenak.

Halako kasuetan jarraitu behar den prozedurak ezarzen du, animaliak udal zerbitzuek edo foru zerbitzuek jaso behar dituztela; ondoren, animalia bilketarako tokietara eraman behar dira. Jardun horiek betetzeko **aldez aurretik salaketa jaso** beharko dute edo jakinaren gainean egon. Hortaz, udal administrazioek abandonatutako animaliak jasotzeko zerbitzua udalerrri barruan emateko betebeharra dute. **Zerbitzu horren bitartez atentziorik gabe dauden txakurrak gure kaletatik kentzen dira**. Era berean, txakurrak mikrotxip bidez identifikatzen dira haien jabearekin harremanetan jarri ahal izateko.

EUSKADIN TERRORISMOAREN BIKTIMEI ERAKUNDEEK EMANDAKO ARRETA



© EITB

Txosten honek Euskadin jazotako eta jazotzen ari den biktimazio terrorista eta biktimei erakundeek emandako arreta ditu hizpide. **Euskal Autonomia Erkidegoan jardun duten edo jarduten duten talde terroristen biktima guztiak hartu ditu barne**, ETak txostenean protagonismo berezia duen arren hilketa gehien eragin izanagatik eta aktibo dagoen talde terrorista bakarra izateagatik. Edozelan ere, Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzarekin jardunak gainjartzea saihestu nahi izan da. Legebiltzarrak aipatu erakundeari "kontrolatu gabeko, eskuin muturreko taldeek eta GALek eragindako terrorismoaren biktimen egoerari" buruzko txostena egiteko agindu zion.

Txostenak **pertsonen bizitza eta oinarrizko eskubideak urratzen** dituzten ekintzen ondorioz jazotako **egoera latza** islatu du. Ekintzok Euskadin jardun duten talde terroristek burutu dituzte, hala nola: ETAm, ETApM, GAL, BVE, GAE, Komando Autonomo Antikapitalistak, Triple A, etab.: 1.000 pertsona inguru hil dira eta gutxi gorabehera zauritutako 16.000 pertsonaren, mehatxu terrorista edo bigarren biktimazioa saihesteko Euskaditik joan behar izan diren milaka pertsonen eta une honetan ETaren mehatxuak, estortsioak edo derrigoritzak pairatzen dituzten 42.000 pertsona ingururen senitartekoen, lagunen eta kideen egoera.

Hala, **terrorismoaren biktimei zuzendutako jarduera eta politika publikoak** daude. Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioei dagokienez, terrorismoaren biktimen egoera arintzeko neurriei buruzko 2003ko ekainaren 25eko Eusko Legebiltzarraren ez-legezko proposamen zabala eta luzea da aipatu jarduera eta politika gehien oinarria. Ez-legezko proposamen hori bozketan parte hartu zuten talde guztiek aho batez onartu zuten.

Eusko Legebiltzarraren ez-legezko proposamen hori txostenean, jarduera publikoak aztertzeko, erabili den oinarrietako bat da. Euskal botere legegileak lan goresgarri eta emankorra garatu du aipatutako legebiltzarreko ebazpena garatzeko. Horretarako, terrorismoaren biktimekin zerikusia zuten ekimen asko hartu ditu.

Terrorismoaren biktimei aitortpena eta erreparazioa egiteko Legearen onarpenak garrantzi berezia hartu du. Aipatu legea 2008ko ekainaren 19an talde parlamentario guztiek aho batez onartu zuten. Lege horren ahalmenik handiena hauxe da: biktimak eskubideak dituzten subjektu bihurtzen dira. Halaber, biktimen eskatutako hirukoia -egia, memoria eta justizia- aipatutako Legeak jasotzen duen eskubide bihurtzen da.

Horrela, Euskal Autonomia Erkidegoan aritu diren edo oraindik jarduera kriminalarekin darraiten talde terrorista guztien biktimek, erakundeen aldetik erantzunik onena jasotzen dute; izan ere, laguntza hori Eusko Legebiltzarretik dator, EAJ-PNV, PSE-EE, PP, Aralar, EA eta EB alderdi politikoei onartutako lege baten bidez.

Nazioarteko araudiak terrorismoaren biktimen aintzatespenarekin zerikusia duten **gutxieneko printzipio batzuk jasotzen ditu**. Txostenak aipatu printzipioak barne hartu ditu eta, neurri handi batean, estatuko eta erkidegoko araudian gehitu dira.

Tokiko esparruan erakundeek terrorismoaren biktimei emandako erantzuna oinarritzat da **terrorismoa gizarte eta politika mailan deslegitimatuzko**. Euskal udal batzuek, ez askok, biktimekin konpromisoa hartu dute eta aktibo daude. Ordea, hiru lurralde historikoetako askok ez dute biktimen aldeko neurririk hartu, ezta heriotza eragin duten atentatuak jazo direnean ere.

Illo horretan, ekintza terroristak osasun, etxebizitza, lan



Arartekoa Arantxa Quiroga Eusko Legebiltzarreko presidentearekin



ezohizko txostenak

dimentsio publikoarekin.

Eskubideen urraketarik larrienetako bat honako hau da: Euskadin mehatxu edota derrigortze terroristen biktimei egindakoa, **jazarpen indarkeria** deitzen zaio.

Milaka pertsonak honako hau jasaten dute:

- askatasunerako eskubidea urratzea eta bizitzaren, osotasun fisiko eta moralaren aurkako mehatxua.

edo hezkuntzaren esparruan ondorioak dituela egiazta daiteke. Laguntza psikologikoa jasotzeko eta artatuko zaituen profesionala aukeratzeko eskubideak nahitaezkoak dira biktimarentzat.

4/2008 Legeak etxebizitzetan, merkataritzako eta industriako establezimenduetan edo alderdi politikoen egoitzetan eta sindikatueta ekintza terroristek eragiten dituzten kalte materialen konponketa ezarri du.


Ilido horretan, lehenetasunezko arreta dute terroristen biktimek babes publikoko etxebizitza bat esleitzen denean.

Bestalde, antzeman da ekintza terroristak eragin dien pertsonak zailtasunak dituztela lana eskuratzeko edo zutena mantentzeko.

Komunikabideak eta hezkuntza-istantziak oinarrizko eragileak dira terrorismoa deslegitimatzerakoan. Bada, txostenaren kapitulu batek alderdi horiek ditu hizpide. Bertan, Euskadiko adingabekoei balioak transmititzeari buruzko txosten bereziaren zati bat aipatu da, giza eskubideen eta balio horiek eskuratzeko bideen arloko alderdi esanguratsuen aurrean. EAEko DBHko ikasleekin egindako galdera-sorta zabaletik ateratako informazio guztitik, haxe gailendu da: **10 nerabetik 7 ETaren jarduera terroristaren aurka daude**, nahiz eta % 15ak ez duen ukatzen edo justifikatzen eta % 14, berriz, axo-lagabe agertu da edo ez du ezer esan.

Txostenak biktimei laguntza ematen die, biktimak elkartzen diren elkarte eta erakunde bidez, eta biktimon eskaeren eta iritzien bitartez politika publikoek aintzat hartu beharko lituzketen **beharrak** azaltzen dira.

Biktimei buruzko politikak laguntzazko politikekin bakarrik identifikatu ezin daitezkeela azpimarratu behar da. Biktimiek egia jakiteko, memoriarako eta justiziarako eskubideen aintzatespena nahi dute banakakoa bakarrik ez den



- aurretiazko biktimizazioaren higadura;
- bizitzako denbora berreskuratzeko ezintasuna, jazarpen indarkeriaren mende egotea;
- bizitzaren alderdi guztietan, bereziki, familiako bizitzan eragina izatea.

Derrigortze eta mehatxu terroristak jasaten dituzten pertsonak kalitatezko babes, arreta publikoko bitartekoen bidez aintzatespena eta gizarte kontzientziazio eta erakunde babesaren bidezko prebentzioa eskatzen dute.



ADINGABEEI BALIOAK TRANSMITITZEA



EAEko adingabeek oinarrizko balio batzuk zenbateraino onartzen eta gain hartzen dituzten du hizpide txosten honek. Balio horien artean, gizarte eragileek aipatu balioak transmititzen eta eraikitzen duten indarra edo eragina. Enfasi berezia eman zaie **balio nagusi** batzuei: sexuaren, jatorriaren, etniaren, ezgaitasunaren edo orientazio sexualaren arabera desberdintasuna onartzea; indarkeria terroristaren ukatzea edo onarpena; ingurumenarekiko errespetua eta zaintza...

Sozializatzeo eta balioak transmititzeko eragileei dagokienez, oinarrizkoak aztertu dira (familia ingurunea, eskola ingurunea, berdinkideen taldea) baina baita geroz eta indar gehiago duten beste batzuk ere, hala nola, komunikabideak edo teknologia berriak. **Hiru adin talde** aztertu dira, hiru hezkuntza alditako 1.800 ikasle baino gehiago: Lehen Hezkuntzako 2. zikloa, Lehen Hezkuntzako 3. zikloa eta DBH.

Horrez gain, esan dezakegu zenbait txostenen aurrean gaudela biltzen duten **informazio** kantitate eta **aniztasunagatik**.

Ikuspegi globaletik honako alderdi hauek gailen ditzakegu:

1) AXOLAGABETASUNAREKIKO INTOLERANTZIA

Txosten honek bi alderdi nagusi izan ditu hizpide: alde batetik, pertsona guztiekiko errespetua eta, bestetik, desberdintasunarekiko tolerantzia. Ildo horretan, txostenaren bidez ikusi ahal izan da tolerantzia eta intolerantzia mailak aldatu egiten direla. Eman ahal izan diren urratsak gorabehera, egun oraindik **intolerantziaren adierazle nabarmenak antzematen jarraitzen da**. Adierazle horiek, besteak beste, **sexismoa, arrazakeria, xenofobia eta homofobia dira**.

2) ESKUBIDEAK GUTXI ERRESPETATZEN DITUZTEN JOKAERAK EDO JOKABIDEAK ZABALTZEA

Adibidez, berdinekoen arteko bizikidetasunean eta gizarte arazoetan edo arazo politikoetan, zigor fisikoaren (zaplas-

takoa) gizarte onarpenari edo zabaldutako erabilerari edo, **arazoak konpontzeko bide gisa indarkeriaren onarpenari eta erabilerari buruz ari gara**.

3) ADINA HANDITU AHALA, JOKABIDE NEGATIBO BATZUK

Logikoa litzateke pentsatzea, adina handitu ahala, oinarrizko balioen finkatze sakonagoa, errespetu gehiago dagoela... Txostenak, ordea, **beti hala ez dela erakusten du**.

4) HEZKUNTZA FUNTZIOA BETETZEN EZ DUTEN FAMILIAK EGOTEA

Txosten hau makina bat alderdiren adierazle da baina argi eta garbi azaldu du **familiak balioak transmititzean duen garrantzia**. Garrantzi hori, gainera, **ezin du beste gizarte eragile batek berdindu**. Hori dela eta, oso larria





da egiaztatzea familia nahikotxok ez dutela beren hezkuntza funtzioa betetzen arrazoi desberdinegatik.

5) TEKNOLOGIA BERRIEN ETA KOMUNIKABIDEEN GEHIEGIZKO ERABILERA EDO ERABILERA KALTEGARRIAK

Adingabeek Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia (IKT) erabiltzea eta gehiegi erabiltzea kaltegarriak dira beren garapenarentzat: behar baino denbora luzeagoan erabiltzea; ia gurasoen kontrolrik gabe; praktika arriskutsuak (datu pertsonalak ematea, ezezagunekin geratzea, etab.); bideo-joko sexistak edo indarkeriazkoak kontsumitzea...

6) ESKOLAK KONTU HORRETAN DUEN EGITEKO MUGATUA

Datu guztiek adierazi dute **eskolak balioak transmititzean duen egitekoa mugatua dela** eta horrek ez du esan nahi garrantzia ez duenik. Beraz, hori bere horretan ez da datu kezkarria, egiaztapen bat baizik. Kezkarria hau da: hori horrela izanda, eskolari hezteko egiteko hori ematen jarraitzen dugu eta gure arreta beste eragile horien gainean uzten dugu, hori edo hori baino garrantzitsuagoen gainean, esaterako, familia edo teknologia berriak eta komunikabideak.

7) KONTRABALIO JAKIN BATZUEN ZABALTzea ETA PISUA

Adituek kontrabali hitza erabili dute, eta ondo erabili ere, **errespetuaren kultura eta giza eskubideak kaltetzen dituzten** ideiak eta jarrerak definitzeko eta besteen eskubideak urratzen dituzten jokabideei izena emateko.

Bereziki kezkatuta gaude hainbat alorretan indarkeria erabiltzea toleratzen edo justifikatzen duten kontrabaliok, indarkeria berdinkideen artekoa izan, gurasoen aurkakoa, irakasleen aurkakoa edo helburu politikoak lortzekoa izan. Azken gai horri dagokionez, EAEko eskoletan egin zen inkestak adierazten du (horren emaitzak terrorismoaren biktimei buruzko txostenean ere jarri genituen), lehen aipatu dugun moduan, **euskal nerabeen gutxiengo adierazgarri batek ez duela indarkeria terrorista baztertzen**. Nerabeek eman dituzten erantzunen arabera, euskarri horiek, funtsean, familia ingurunean transmititzen dira; lagunek ere eragin handia izan ohi dute.

Era berean, kezkatuta gaude **giza eskubideekiko ez errespetuzko jarrerak** edo jokabidek egiaztatu direlako, hain zuzen, indarkeria terroristarekin zerikusia duten beste alderdi batzuei dagokionez. Egia bada ere gutxiengo bat dela hala jokatzeko duena. Indarkeria horren adibide dira, besteak beste, tortura, tratu txarrak eta presoaren eskubideak. Horrez gain, txostenean **sexismo, xenofobia, ijitofobia** eta **homofobia** bezalako kontrabaliok duten

ezohizko txostenak

zama aipatzen da. Gainera, **materialismoari** eta **arrakasta profesionala** eta sozialari lotutako balioen gainean telebistako programa batzuetan ematen den ikuspuntua haur eta nerabeengan zabaldua dagoela adierazten da.

Larritzeko elementu horiez gain, **txosten honetan makina bat elementu positibo nabarmen ditzakegu. Adibidez:**

- Adingabeek, oro har, familiari, irakasleei, lagunei... dagokionez azaldu duten asetasun maila altua.
- Terrorismoaren biktimekiko azaldu duten babes maila altua.
- Nahiko zabaldua dagoen ingurumen kontzientzia edukitzea.
- Zaurgarritasun egoera jakinen aurrean (ezgaitasuna) elkartasuna.
- Eta, oro har, pertsonen eskubideekiko errespetuzko jarrerak dituztenen edo desberdintasunaren aurrean irekiera eta onarpen jokabideak dituztenen proportzio altua. Ia gehienetan, gehiengo dira intoleranteen aurrean.



Iñigo Lamarca, Arantxa Quiroga eta Julia Hernández

Txostena hartzailearen arabera ordenatuta dauden 20 gomendiorekin amaitu da:

- Gizarteari eta erakundeei eragiten dietenak
 - Familiei dagokionez
 - Komunikabideei zuzendutakoak
 - Teknologia berriei buruzkoak
 - Hezkuntza sistemari zuzendutakoak
 - Balioen bilakaeraren nahitazeko jarraipenari buruzkoa
- Hala, uste dugu modu honetan gizartearen, erakundearen eta belaunaldi berriei balioak transmititzen eta eraikitzen zuzenago tartean dauden gizarte eragileen erantzukizuna argiago geratu dela.



© COLITA FOTOGRAFIA

TRANSGENERO ETA TRANSEXUALEN EGOERA EUSKADIN

Transgeneroek eta transexualek errespetu eta laguntza osoa merezi dute. Gure gizarteak ulertu behar du jaiotzetiko sexu biologikoarekin bat ez datozela sentitzen duten pertsonak jasaten duten esperientzia latza. Informazioa eta ezagutza ezinbesteko tresnak dira **aurreiritziak gainditu eta pertsona horiek pairatzen duten bereizkeria buka dadin**. Talde horren zaurgarritasun berezia aintzat hartuta, **berdintasuna lor dadin** eta transgeneroek eta transexualek beren eskubideak baliatzeko topatzen dituzten oztopoak ken daitezen txosten hau egin dugu.

Ilido horretan, ohartu gara transexualitatea eta transgeneroa **gizarteak ezagutzen ez dituen fenomenoak direla**. Askotan transgeneroak eta transexualek estereotipo negatiboekin identifikatu dira eta, batez ere, ikuskizunen munduarekin edo marjinazioarekin lotu dira. Ordea, errealitateak hori horrela ez dela azaldu digu. Pertsona horiek guztiak partekatzen duten alderdia genero identitatearen bizipena da, gizarteak markatzen dituen kanonak alde batera utzita.

Transexualen kasuan, pertsona biologikoki esleitu ez zaion sexuan bizi eta garatzen ahalegintzen da, alegia: biologikoki emakume jaio da baina gizon sentitzen da eta hala bizi nahi du, edo alderantziz. Ordea, **transgeneroa** bi sexuekin edo ezeinekin identifikatu daiteke. Inguruabar

berezi horrekin batera, **ulertezintasunak eta gizarte bereizkeriak larriagotzen duten sufrimendu sakona jazo ohi da**. Hortaz, berariazko gizarte eta osasun erantzuna eskatzen duten pertsonak dira.

Bide luzea ibili dugu 1979an transexualitatea zigortzea atzean utzi zenetik. Hala ere, transgeneroek eta transexua-



Arartekoa Eusko Legelbitzarreko presidentarekin



ezik). Honela, ezarpen horrek tratamendu medikoak egin nahi ez dituzten eta, aldi askoz laburragoan, tratamendu hormonalaren ondorioengatik irudia sentitutako sexuari egokitzea lortzen duten transexualak eta transgeneroak kanpo uzten ditu.

Osasun arretari buruzko alderdiari dagokionez, Osakidetza, gorputza egokitzeko prozesuan, pertsona horien behar terapeutikoei ematen dien erantzuna aztertu da. EAEn osasun publikoak ematen dituen prestazioak eta, zehazki, Gurutzeta Ospitaleko Genero Identitatearen Nahasmenaren Diagnostiko eta Tratamendu Unitateak protokoloari jarraiki ematen dituenak aztertu dira.

Analitik honako hau ondorioztatu da: beharrezkoa da, Osasun Sailak pertsona horien behar terapeutikoei erantzuna emateko aurreikusi dituen jarduerak burutzen ez dituen bitartean, **sexua berresleitzeko tratamendu integralari buruzko osasun prestazioa baldintza berberetan egiteko aukera ematen duten neurriak hartzea**. Baldintza berberak, hain zuzen, EAeko osasun publikoaren sisteman finantzaturako beste prestazio batzuei dagokionez.

Beste txostenekin egin den moduan, Ararteko erakundeak, egoeraren, pertsona horien beharren eta eskakizunen eta gizarteak eta EAeko herri-administrazioek ematen duten erantzunaren berri izan ondoren, proposamen batzuk egin ditu: guztira **27 gomendio**, gizarte sentsibilizazio, herritarrentzako informazio, hezkuntza eta lan esparruan bazterkeriaren eta bereizkeriaren prebentzio, azpiegitura administratiboak eta arreta zerbitzuak, gizarte eta osasun arreta egokitzearen, transexualen eta transgeneroen gizarte parte hartzearen arloan edo aipatu pertsonen babesa zabaltzeko esparru juridikoaren egokitzapenari buruz.

lek beren funtsezko eskubideak, batez ere berdintasunerako eskubidea, **bereizkeriarik ez egoteko eskubidea eta osasunerako eskubidea**, modu eraginkorrean erabil ditzaten geratzen zaigun bidea luzea da.

Txosten honetan transgeneroen eta transexualen testigantzak jaso ditugu. Ildo horretan, honako hauen berri izan dugu: sexu biologikoaren eta sentitzen duten beste sexuaren arteko desberdintasun horren inguruko lehenengo sentsazioak nola sortzen diren; esperientzia hori, ia beti gogorra eta mingarria, haurtzaroan, nerabezaroan, gaztaroan eta heldutasunean nola bizi izan duten; hori guztia azaldu baino lehen eta ondoren gizartean zer erantzun topatzen duten; nola jabetzen diren gertatzen zaienaz; familiak, lagunek eta lan inguruak nola jokatzeko duen... Pertsona horien premia nagusiak eta gizarteak eta herri-administrazioek ematen dien erantzuna aztertu dira. Hala, antzeman dugu talde horren **premia nagusia errespetuzko, berdintasunezko tratua eta tratua eta ez bereizlea jasotzea eta behar bezalako gizarteratzea** lortzea dela. Premia horiei erantzuna emateko, oso garrantzitsua da erregistro datuak benetako nortasunera egokitzeko eta behar bezalako osasun erantzuna.

Legezko aldaketei dagokienez, 3/2007 Legeak sexuari eta dagokion izenaren aldaketari buruzko aipamenaren erregistro zuzenketa egiteko bidea ematen du. Txostenean, pertsonok araudia aplikatzerakoan topatzen dituzten arazo nagusiak aztertu ditu. Erregistro aldaketa burutze aldera, lege honen aurrerapen nagusietako bat pertsonak sexua berresleitzeko ebakuntza kirurgikoa eginga edukitzea baldintza gisa barne ez hartzea bada ere, bi urteko tratamendua eskatzen da (osasunari eta adinari buruzko salbuespen batzuk izan



IGOGAILUAK INSTALATZEARI LEHENTASUNA EMAN BEHAR ZAIE, ARRAPAL ETA ESKAILERA MEKANIKOEI BAINO

Ezgaitasunen bat duten Pertsonen Eskubideen Konbentzioa 2008ko maiatzean jarri zen indarrean. Konbentzioa onartu duten estatuek konpromisoa hartu dute konbentzioan aitortzen diren eskubideak benetako bihurtzeko beharrezko diren politikak, legeak eta administrazio neurriak aplikatzeko. Era berean, ezgaitasunak dituzten pertsonak bereizkeriaren esku jartzen dituzten legeak, araudiak, ohiturak eta jardunak indargabetuko dituzte. Irisgarritasunaren arloan horrek esan nahi du **estatuek, konbentzioaren ondotik, oztopoak identifikatu eta kendu behar dituztela**, ezgaitasunak dituzten pertsonak ingurune fisiko horietara, garraibideetara, instalazioetara eta zerbitzu publikoetara hel daitezen, baita informazio eta komunikazio teknologietara ere.

Gure erkidegoaren baitan, irisgarritasuna sustatzeko legeak gure erkidegoko **persona guztiek ingurune fisikorako eta komunikaziorako irisgarritasuna bermatzeko neurriak jasotzen ditu**; eta, bereziki, hainbat arrazoiengatik mugaren bat duten pertsonen integrazioa hobetzeko ekintza positiboak biltzen ditu. Muga horiek dituzten pertsonak gizarte desberdintasunean daude. Lege horri jarraiki, **botere publikoak pertsonen bizi kalitatea hobetuko duten laguntza teknikoak sustatu behar dituzte**. Horren bidez, "hiri-ingurunearen, gune publikoen, eraikinen, garraibideen eta komunikabideen irisgarritasuna bermatzea, pertsona guztiek eta, batez ere, mugikortasun urria, zailtasunak komunikazioan edo muga psikiko zein sentzoriala, aldi baterako zein betirako, dituztenek era autonomoan erabil eta goza ditzaten".

2004az geroztik, Arartekoak herri-administrazioei, eta, bereziki, udalei erreklamatu die sakon azter dezatela hiri ingurunean irisgarritasun arazoak bideratzeko konponbide teknikoek ematen dituzten aukera ezberdinak. Horri dagokionez, **herritar guztiek berdintasun egoeran erabil ditzaketen instalazioei lehentasuna ematea hobesten**



dugu; horrela aukera berdintasunaren eta bereizkeriaren aurkako printzipioa gauzatuko dira, ezgaitasunak dituzten pertsonen kasuan. Horren harira kexa asko jaso dugu, eskailera mekanikoak, arrapalak eta zola ibiltariak instalatu dituztelako oztopoak gainditzeko bide gisa.

Premisa bat hartu ohi dugu abiapuntu: **eskailera mekanikoez ez dituzte mugikortasun mugatua duten pertsonak dituzten irisgarritasun arazoak konpontzen**. Izan ere, gurgildun aukia duten pertsonak, adinekoak eta haurren karrotxoak daramatzatenak halakoak erabiltzetik kanpo geratzen dira. Arrapala mekanikoak ere oztopo handiak dira mugikortasun urria duten pertsonentzat, kasu gehienetan, ezin baitituzte beren kabuz erabili.

EAEko udalerrri askok eremu desberdinen arteko lotura arazoak igogailu edo jasotze plataformak jarrita konpondu dituzte, eta horrek pertsona guztiek erabiltzea ahalbidetzen du. Gainera, mugikortasun bertikalen arazoak bi noranzkoetan konpontzen ditu, goranzkoan eta beheranzkoan. Igogailuak beste konponbide batzuekin alderatuz, hizpide diren beste elementuek ematen ez dituzten aukerak eskaintzen dituzte: herritar guztiek erabil ditzakete:



mugikortasun bertikala bi noranzkotan ahalbidetzen dute; arrapala edo eskailera mekanikoak baino merkeagoak dira; instalazioa eta mantentzea askoz merkeagoak dira; funtzionamendu hobea bermatu daiteke, eta, teknikoki, elementu seguruagoak dira.

Udal batzuek, igogailua jarri ordez, lehentasuna eman diote arrapala edo eskailera mekanikoak jartzeari. Ezgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Elkarteek laguntzarekin, zenbait leku ikuskatu ditugu, ahal den neurrian proposatutako neurrien egokitasuna balora dadin. Irisgarritasun arazoak konpontzeko igogailuak jartzea bideragarria zela antzeman genuen ikustaldi guztietan. Udalek, aldiz, eskailerak edo arrapalak jartzea erabaki zuten. Halakoek malda handiak zituzten eta noranzko bakarrek ziren. Horrez gain, mugikortasun urriko pertsonentzat aurreikusitako aukerako ibilbideak oso luzeak izaten eta maldak edukitzen jarraitzen zuten. Gure gogoetak aintzat hartuta, udal batzuei egokia iruditu zaie hasierako proiektuak aldatzea, beste batzuek, berriz, ez dituzte zuzendu nahi eta beste batzuek jada hasitako lanak etetea neurritz kanpokotzat jo dute.

Horregatik, **ingurune irisgarria funtsezkoa da eskubide berdintasunean oinarritutako gizarte lortzeko**, baita herritarrei autonomia ematen baitie eta bizitza sozial eta ekonomiko erabat aktiboa garatzeko beharrezko bitartekoak ere. Horregatik, hiri ingurune irisgarri ziurtatzeko, igogailuak instalatu behar dira konponbide tekniko gisa; beti ere, horretarako aukera badago. **Arrapalak edo eskailerak jartzeak ez du irisgarritasun unibertsalaren printzipioa betetzen**, eta ez du legearen asmoa betetzen: irisgarritasuna sustatzea. Izan ere, mugikortasun urritua duten pertsonak ezin dira guztiz ondo mugitu ingurune horretan.



Arartekoak uste du, pertsona guztiak ingurune fisikoan irisgarritasun bera izan dezaten, **botere publikoek beharrezko jardunak sustatu behar dituztela, indarrean dagoen legea bete dadin.** Hori dela eta, bereziki udalek egin behar dute esfortzua, hiri ingurunetan igogailuak instalatzeko. Horrela mugikortasun urritua duten pertsonen bizi baldintzak hobetzen lagunduko dute, eta bereizkeriarik ez jasateko duten eskubidea gauzatuko dute.



ETORKINEI BEREN ESKUBIDEEZ BALIATZEN LAGUNTZEKO ADMINISTRAZIOAREN ARDURA, ZERBITZU PUBLIKOEN HIZKUNTZA ERABILGARRITASUNAREN BERMEARI DAGOKIONEZ

Etorrin batzuk ezin dira gure erkidegoko ezin hizkuntza ofizial mintzatu, eta **zerbitzu publikoetara heldu eta askatasunez komunikatzeko arazoak dituzte**. Beste pertsona batzuen mende egoten dira, eta horrek mezuaren edukia gutxitu eta adierazpen askatasuna murriztu ditzake.


Botere publikoen eskutik beharizan horiek bideratzeko martxan jarri diren ekimenak nahiko inprobisatuak dira, jaso ditugun kexen arabera. Horrek arriskuan jartzen du konfidentziasuna, fideltasun linguistikoa eta kultura sentsibilitatea; **etorkinek beren eskubideak guztiz baliatzeko beharrezko elementuak aurreko hirurak**.

EHU aspaldi ari da esparru horretan lanean, Europako Batasuneko esperientziak eta hausnarketak helarazteko eta gure ingurunera egokitzeko. Ikerketa horiek nabarmendu dutenez, **itzulpenaren eta interpretazioaren dimentsio soziala ekarri behar dugu gurer**a. Horregatik, administrazioak ildo horretan egin behar du lan, eta beharrezko bitartekoak eskura jarri behar ditu zerbitzu publikoetako langileek ikuspegi kultura anitza har dezaten. Gainera, zerbitzua behin esleituta, eraginkorra eta kalitatezkoa izan dadin, administrazioak **beharrezko bitartekoak jarri beharko lituzke sortzen diren arazoak eba-**

luatu eta bideratzeko. Bestalde, itzulpengintzako eta interpretazioko zerbitzuak emateko gutxieneko irizpide profesionalak ezin dira bakarrik esleipendunen esku egon. Aitzitik, administrazioak jokabide aktiboak izan behar du halako zerbitzuaren kalitatea zehazten duten hiru faktoreak kontrolatzen: langileen aukeraketa zuzena, beren egitekoa irizpide etiko eta profesional batzuetara egokitzea, baita emaitzak kontrolatzeko eta ebaluatzeko sistema egokia ere.

Horregatik, **Arartekoak Eusko Jaurlaritzari gomendatzen dio beharrezko neurriak har ditzala interpreteen sare bat osatzeko. Sare horrek administrazio publikoetara emango die zerbitzua, EAEko hizkuntza ofizialak ezagutzen ez duten etorkin erabiltzaileen kasurako**. Aipatutako sareak interpretazio sozialaren irizpideak hartu beharko lituzke barne, diseinua, buruzapena eta jarraipena eta kalitatearen kontrolari dagokionez.

EUDELi ere gomendio bera egiten diogu, eskura jarriko den interpretazio sistema ezartzeko eta kontrolatzeko irizpide berak aplikatu dituzten. Zerbitzua etorkinen hizkuntza eskuragarritasuna errazteko izango da, eta tokiko administrazioaren gizarte ongizatearen esku jardungo da.



ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIBIDEKO APELAZIOEN ARRISKUAK: ERABILTZAILLEENTZAKO INFORMAZIOA HOBETZEKO ETA ADMINISTRAZIOAK KOSTU GISA ERREKLAMATZEN DITUEN PROFESIOALEN ORDAINSARIAK PONDERATZEKO BEHARRA

Osakidetzak 31.290,50 euro eskatu zizkion neska gazte bati, prozesuko kostuengatik. Neskari kirurgia egin zioten, istripu baten ondorioz, eta 1.200.000 euroko kalte ordaina eskatu zuen, albo-ondorio gisa paralisia geratu zitzaiolako. Lehenengo instantzian galdu ondoren, Justiziako Auzitegi Nagusiaren aurrean errekurritu zuen. Auzitegi Nagusian,

printzipioak sar ditzaten. Printzipio horiek justiziak hobeto funtzionatzea izango dute oinarri, baita erabiltzaileen onura ere.

Alde batetik, Abokatuen EAEko Kontseilura jo dugu. Bertan adierazi diegu administrazioarekiko ondare erantzukizun salaketak ugaritu direla, eta **ziurtatu behar dela bezeroek arriskuen berri dutela lehenengo instantzian ezezkoa jaso ondoren apelatzea erabakitzen badute. Eta, kostuak ordaintzea agin diezaieketela jakin behar dute ere.**

Bestalde, EAEko administrazioetara jo dugu. Administrazioei azaldu diegu ordainsariak eskatutako kalte ordainen arabera kalkulatu gero, kate ordaina bezain neurrigabeak izan daitezkeela. Administrazioei gomendioa egin diegu, aurretik aipatutako bidearen bidez eskuratutako kopurua pondera dezaten. Horretarako jurisprudentziak kopurua zuzenbidearekiko egokia izan dadin ezartzen dituen irizpideak aplikatzeko esan diegu. Honakoak dira irizpideak: benetan egindako gastua ordaintzea, gehiegizko epaiketak saihestea, gaiaren zailtasuna eta horrek bigarren instantzian izan duen eragina, eta erreklamatzeko den minutak ordainduko lukeen lana.



© David González (Ketan)

berri zere kontrako epaia eman zuten eta **apelazioaren kostuak ordaintzea ezarri zioten**. Kostu horien artean, administrazioak bere defentsa juridikoaren ordainsari gisa sartutakoak zeuden. **Arazo hori bera justiziako administrazioeko beste erabiltzaile batzuek ere helarazi digute, ordainsariak neurrigabeak iruditzen zaizkielako.**

Izan ere, administrazioak, eredugarri jokatu nahian eta errekurtsogileak ildo horretatik desbideratu nahian, batzuetan, kontzeptu horregatik kalkulatu dituen zenbatekoak eskatutako indemnitazioaren arabera egiten ditu. Hala ere, administrazioaren abokatuak ez du gastu estrarik sortzen, administrazioaren zerbitzu juridikoen kargu egiten delako. Gainera, batzuetan, **erreklamaziogileek ez dute kostuak ordaindu behar izatearen arriskuaren berri izaten haien abokatuen eskutik**. Areago, ez diete esaten ordaindu behar dituztenik. Ondorioz, zorraren berri jasotzen dutenerako zorra ezi da aurkaratu, eta jada interesak era errekaratuak sortu ditu. **Arartekoak beharrezkoa jo du esku hartzea. Proposamena egin du tartean diren eragile juridiko guztiek arrazionaltasun**



ARARTEKO ERAKUNDEAREN 20. URTEURRENA

Ekainaren 17an Gasteizko Artium museoan ekitaldi instituzional bat egin zen, Arartekoaren 20. urteurrena ospatzeko.

Hainbat agintari joan ziren ekitaldira, hala nola, lehendakaria, Eusko Legebiltzarreko presidentea, gobernuko ordezkaria, Arabako eta Gipuzkoako diputatu nagusiak, Arabako Biltzar Nagusietako eta Gipuzkoako Batzar Nagusietako lehendakariak, Arabako eta Gipuzkoako Probintzia Auzitegietako lehendakariak, estatuko herriaren defendatzailea eta erkidegoetako defendatzaileak, parlamentarioak, EAEko herri batzuetako alkateak, alderdi politikoetako ordezkariak...

Bertaratutako 400 agintari horien artean hainbat esparrutan lan egiten duten eta Arartekoarekin harreman estua duten **elkarte batzuetako ordezkariak** zeuden: Unicef, Iniciativa Gitana elkarte, Fekoor, Once, HIESaren aurka borroka egiteko elkarte, Emaus, Lantegi batuak fundazioa,



Presoari laguntzeko elkarte, Alzheimerri duten gaixoen familiartekoen elkarte, Anorexiaren eta bulimiaren aurkako elkarte, Biztanle afroamerikarren elkarte, Hartutako kalte zerebralaren Euskadiko elkarten federazioa (ATECE), etab.





bestelako jarduerak

Ekitaldian, arartekoak hauxe esan zuten: **“demokraziek kalitate eta eraginkortasun hobea dute herriaren defendatzaile bat badute beren baitan.”** Horrez gain, Iñigo Lamarckak honako nahi hau zuen: “ea kultura unitertsalari bakea, pertsona guztien duintasunerako eta askatasun eta eskubide guztiekiko errespetua, gizakien artean anaitasuna eta elkartasuna funtsatzen eta sustatzen duten balioak helarazten dizkiogun, baita pobrezia, bazterkeria, marjinalitatea, bereizkeria eta desberdintasunarekin amaitzeko politika publikoak ere”.

EAEko gizartearen eta elkartearen munduko ordezkariak Arartekoak egindako lanaren eta ibilbideari buruz duten iritzia jasotzen duen **“Arartekoa, 20 urte zuzerat lanean”** izeneko bideo laburraren emanaldiaren ondoren, **20 urte hauetan erakundearen arduradun nagusi izan diren pertsoneri aintzatespen publikoa egin zitzaizen. Honako hauek, zehazki: Juan San Martín, Xabier Markiegi eta Mertxe Agúndez.** Egindako lana eskertzeko, Judas Arrieta artistaren obra originala eman zitzaizen eta, Juan San Martinen kasuan, haren alargunari, **M^a Paz Ibeas**



andreari hain zuzen. Aintzatespenak **Jesús M^a Arteaga** eta **Julia Hernández** ondoak, baita Arartekoan lan egin duten eta lan egiten duten pertsona guztiak ere, barne hartu zituen.

Alderdirik ludikoenean, honako hauek nagusitu ziren: Kukai Dantza taldearen emanaldia. Aipatu taldeak HNUY ILLA izenekoaren zati bat Iñaki Salvadorren musikarekin eskaini zuten; Eva Mena artistak zuzenean egin zuen graffitia eta bertaratu ziren pertsona ia gehienek argazkiak biltzen zituen mural bat. Bertan, pertsona horiek sinatu edo egoki irizitako mezuak idatzi zituzten.

Guararey Kubako musika taldeak eta Robin Cooper Tríó jazz taldeak girotu zuten ekitaldia.

...



Xabier Markiegi eta Iñigo Lamarca Espainiako eta autonomia erkidego batzuetako herriaren defendatzaileekin

BIDERATUTAKO 27.000 KEXA ETA MILAKA KONTSULTA

Arartekoa Eusko Legebiltzarraren goi ordezkaria da, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen jardueretan eta politika publikoetan gizabanakoen eskubideak bermatzeaz arduratzen dena. Ararteko erakundea Eusko Legebiltzarraren otsailaren 27ko 3/1985 Legearen bidez sortu eta arautu zen. **Hogei urte dira 2009ko martxoaren 8an Juan San Martinek EAEko lehenengo arartekoaren kargua hartu zuenetik.** Ordutik, erakundeak herritarren alde eta herritarrentzat egiten du lan.

Urte hauetan guztietan 27.000 kexa inguru bideratu eta milaka argibide-eskaera erantzun dira. Gainera, giza eskubideekiko sentikortasuna eta kontzientzia bultzatzea helburu zuten hamaika ekimen garatu dira. Horrekin batera, herri-administrazioetako politika publikoen inguruko ikerketak egiten ditu txosten bereziak edo monografiakoak gauzatzuz, baita gomendioak ere, politika horiek hobetu daitezzen.

Era berean, herritarrei zerbitzua eskaintzen dizkieten zentroak eta bulegoak ikuskatzera joaten da, noizean behin harremanak izaten ditu gizarte-errealitatearekin lotutako alor ezberdinetan aritzen diren elkarte zein erakundeekin, eta hamaika jarduera nahiz forotan parte hartzen du. Hori guztia politika publikoak eta administrazioen jarduerak etengabe garatu eta hobetu daitezke egiten du, alegia, kalitatezko zerbitzuak eskaintzeko, **eskubideak betetzen direla bermatzeko, eta desberdintasunei, bazterkeriari, prekarietateari zein gizarteko bazterkeriari aurre egiteko eta horiek desagerrarazteko.**

Gizarte-politikak eta demokrazia hobetzeko asmoz, urte hauetan guztietan makina bat **txosten berezi** egin eta **ikerketa-bekak** eman ditu.

Garrantzi eta zailtasun handiko eginkizuna da haurren eta nerabeen artean eskubideetan oinarritutako kultura hedatzea. Horregatik guztiagatik, hauxe da adingabeen alorrean Arartekoak duen helburuetako bat: adingabeen eskubideak aditzera ematea eta **haurren artean giza eskubide guztiekiko -haienak zein besteenak- errespetua oinarri duen kultura hedatzea.** Horrez gain, giza eskubideekiko errespetuaren kultura zabaldu nahi du, eta, horretarako, Euskal Herriko Unibertsitatearekin batera udako ikastaroak eta herritarrek hausnar eta parte har dezaten foroak antolatzen ditu.



Iñigo Lamarca eta Julia Hernández

20
urte años

Zuretzat lanean
Trabajando para ti



bestelako jarduerak

“POLITIKA PUBLIKOEN ERRONKAK DEMOKRAZIA AURREERATU BATEAN” IZENBURUKO JARDUNALDIAK

Bilboko Euskalduna Jauregian egin zen hitzaldi ziklo horren xedea hauxe zen: egun politika publikoek, gizarte aldakorren testuinguruan, aurre egin behar dieten erronei buruzko **eztabaida eta hausnarketa bultzatzea**. Gonbidatu ziren adituen iritzien bidez, demokrazia hobetzeko eta herritar guztien eskubideen defentsa bermatzeko bide posibleak aztertu ziren.

Aipatu jardunaldietan, arlo bakoitzean **gutxi gorabehera hogeita hamar adituk** parte hartu zuten, horien artean: Javier de Lucas (Valentziako Unibertsitateko Zuzenbidearen Filosofia katedraduna eta CEAREko lehendakaria), Federico Mayor Zaragoza (Bake Kulturarako Fundazioko lehendakaria eta UNESCO erakundeko zuzendari nagusi ohia), Vicenç Navarro (Espainiako Gizarte Behatokiko zuzendaria) eta José Antonio Pastor Ridruego (Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko Nazioarteko Zuzenbideko katedradun emeritua eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiko epaile ohia).



Gipuzkoako ahaldu nagusia ekitaldiko argazki taulan sinatzen



Arartekoa Bilboko alkatearekin

BULEGO PUBLIKOETAN ARARTEKOARI BURUZKO INFORMAZIO GUNEAK

Arartekoak **informazio kanpaina** bat jarri zuen abian eta horrek bulego publiko batzuetan informazio guneak jartzean zetzan. Gune horiek baliabide deigarriak izan ziren, kartoiz eta harriz egindako eskultura baten antzekoak, eta **Ararteko erakundeari buruzko intereseko informazioa zuten liburuxkak** (zer den, zer egiten duen, noiz etorri, kexa bat nola aurkeztu...) eta urteko aldizkariaren aleak biltzen zituen.

Lehenengo fasean, informazio gune horiek EAEko udal bakoitzean jarri ziren, ikus daitezkeen eta normalean jendea askotan ibiltzen den tokietan. Bigarren fasean, informazio baliabideak hiru Foru Aldundietako eta Eusko Jaurlaritzako bulegoetara bidaliko dira.



ARGITALPENAK

- **Eusko Legebiltzararentzako Txostena**, aurreko urtean Ararteko erakundeak burututako jarduera biltzen duena.
- **“Euskadin terrorismoaren biktimei erakundeek emandako arreta”** izeneko txosten berezia.
- **“Adingabekoei balioak transmititzea”** izeneko txosten berezia.
- **“Transgenero eta transexualen egoera Euskadin”** izeneko txosten berezia.



Giza Eskubideen kartela 2009



Julia Hernández, Arantxa Quiroga eta Iñigo Lamarca

- **“Adinekoen eskubideak eta tratu txarren prebentzioa”**. Arartekoak sustatutako ikerketa lana eta Patxi Leturiak eta Nerea Etxanizek burututakoa. Lan horrek gutxi ezagutzen den eta makina bat esku-hartze eskatzen dituen egoera aztertzen du: gizarte sentsibilizazioa, profesionalak prestatzea, pertsonak beren eskubideez kon-

tzientziatzea, prebentzioa... Biztanleria pixkanaka zahartzeak, zahartze horretatik eratorritako beharren hazkundera nahiz behar horiei aurre egin, horiek babesteko baliabideek beharrezko egiten dute hausnarketa estrategikoa egitea. Izan ere, ezagutzaren alor guztiak, politikak eta gizarte antolamendua biztanleriaren laurden bat gainditzera pixkanaka iritsiko den errealitate eta talde bati egokitu beharko zaio.

Lan honen ikuspegiak honakoa argitzeko asmoa du: adinekoen tratu desagokia prebenitzeko estrategia eraginkorrena pertsonen eta haien senideen “jabekuntza” da, batez ere beren eskubideak baliatzeko eta beren burua defendatzeko ahalmenik gabe egon daitezkeenengan.

- **Haurren eskubideei buruzko Hitzarmenaren (HEH) 20. urteurrena** ospatzen zenez, Europako Kontseiluak, “Haurrentzako eta haurrekin Europa eratzea” izeneko programaren esparruan, haurren eta nerabeen eskubideak azaltzeko materialak prestatu zituen. Materialok aipatu taldeek ulertzeko moduan eta formatu egokian daude.

Ararteko erakundearen 20. urteurrenarekin bat egiten duela aintzat hartuta, kanpainari gehitu gatzazkio. Hala, ikastetxeetan sentsibilizazio eta prestakuntza jardueretan erabiltzeko materialak editatu dira. Materialak EAEko ikastetxe guztietara bidali ziren.





Iñigo Lamarca kargua hartzen



© DEIA

EUSKO LEGBILTZARRAK BERRIZ HAUTATU DU IÑIGO LAMARCA ARARTEKO LANAK EGİN DITZAN

Urriaren 8an, Eusko Legebiltzarrak Iñigo Lamarca izendatu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko ararteko. Hala, beste **bost urterako hautatu** da berriz ere.

Gauzak horrela, Iñigo Lamarca da **erakunde honen historian berrautatu den lehenengo arartekoa**. Lamarca jaunak, gainera, legebiltzarkide askoren babesia izan zuen. Eusko Legebiltzarraren osoko bilkuraren aurrean, urriaren 15ean, jabetu zen karguaz.

2004ko ekainaren 18an izendatu zuten lehen aldiz ararteko. Bost urte horietan erakundearen buru izanik egin duen lanak honako ardatz hauek izan ditu oinarri: erakundea berritzea, ematen dituen zerbitzuen kalitatea eta eraginkortasuna hobetzea, **herritarrek erakundearen berri edukitzea, gizarte elkarteekin harremanak estutzea** eta

Arartekoaren jardueren esparrua irekitzea, gizarte egoera, batez ere, behar gehien duten pertsonen eta taldeen egoera eta politika publikoen diagnostika ezagutzeko bideratutako lana sakondu eta zabalduta.

Iñigo Lamarca Zuzenbidean lizentziaduna da, Euskal Herriko Unibertsitatean. EHUren Zuzenbide Fakultatean Konstituzio Zuzenbidea irakatsi zuen eta zuzenbide autonomikoaren esparruan eta, bereziki, euskal lurralde historikoei buruzko zenbait ikerketa lan egin zituen. 1994. urtean, Gipuzkoako Batzar Nagusietan abokatu lanetan hasi zen. **Orientazio homosexualeko eta nortasun transexualen pertsonen eskubideak defendatzean burutu duen lanagatik gailendu da Lamarca jauna.**

JULIA HERNÁNDEZ BERRIZ HAUTATU DUTE ARARTEKOAREN ONDOKO LANAK EGİN DITZAN

Arartekoak hala proposatuta, **Julia Hernández EAEko arartekoaren ondoko karguaz jabetu zen**, hain zuzen, Eusko Legebiltzarreko presidentearen aurrean.

Arartekoaren ondokoa **Zuzenbidean lizentziaduna da, Salamancako Unibertsitatean, baita Kriminologian lizentziaduna ere**. Azken hori, aldiz, Euskal Herriko Unibertsitatean. Horrez gain, Ombudsmanen Iberoamerikako Federazioaren Emakumeen Defentsa Sareko kidea eta Euskal Herriaren Adiskideen Elkarte Arabako Batzordearen kide supernumerarioa da.

2004ko ekainean, ondoko kargua bete zuen lehen aldiz, Iñigo Lamarcak Eusko Legebiltzarren onarpenarekin izendatu ondoren.



Arantxa Quiroga eta Julia Hernández

JARDUNALDIAK ETA EKITALDIAK

■ Arartekoa eta ondokoa Stockholmorra joan ziren Suediako Ombudsman parlamentarioaren oroitzapenezko ekitaldira, hain zuzen, aipatu **Ombudsmanaren 200. urteurrena ospatzera**. Mende batean baino gehiagotan, Suediako herriaren defendatzaile parlamentarioaren erakundea izan zen munduan mota horretako erakunde bakarra. Egun, herriaren defendatzaileek Zuzenbidezko Estatuaren printzipioak bete daitezzen eta giza eskubideak errespetatu daitezzen lan egiten du 120 herrialde baino gehiagotan. Berrehungarren urteurren hori ospatzeko, Stockholmon, "IX. Ombudsmanaren Nazioarteko Erakundearen Munduko Hitzaldia" egin zen.

■ Iñigo Lamarca arartekoa eta Julia Hernández ondokoa Madrilan egin zen **Ombudsmanaren Iberoamerikako Federazioaren (OIF) XIV. Kongresura** joan ziren. OIF herritarren eskubideak defendatzeko eta babesteko iberoamerikako bilera da. OIFen helburu nagusia foro bat sortzea da, elkarrekin lan egiteko, batak besteari bere esperientzien berri emateko eta Ombudsmanaren irudia sustatu, ezagutarazi eta indartzeko. Horrez gain, **Emakumeen Sareak esplotazio sexualerako eta laneko esplotaziorako emakumeen eta neskatilen salerosketari buruzko mintegia** egin zuen.

■ Babesik gabeko egoeran dauden adingabeen egoeraren eta adingabe horiei laguntza emateko erakunde eta gizarte balibideen berri izateko Marokora joan ziren herriaren defendatzaileen ordezkartzako kide izan zen Iñigo Lamarca arartekoa. Horrez gain, Tres Culturas fundazioak Pablo de Olavide Unibertsitatearekin elkarlanean arituz antolatu zuen **Adingabea Espainian eta Marokon babesteari buruzko Jardunaldien** barruan, arartekoak adingabea Espainian babesteari buruzko mahai-inguru batean parte hartu zuen, Sevillan, hain zuzen.

■ Halaber, arartekoak, Sevillan, **XIX. Gizarte Pediatriari buruzko Kongresuaren** esparruaren barruan, gizarte bazterkeria egoeran geratzeko arriskua duten haurrei

buruzko mahai-inguruan parte hartu zuen.

■ Santiago de Compostelan, Hezkuntza, Giza Eskubide eta Herritarrei buruzko Udako Eskola egon zen. Eskola hori Bake Kulturaren Fundazioak antolatu zuen eta UNESCOko zuzendari nagusi ohia den Federico Mayor Zaragoza jauna izan zen bertako buru. Ikastaro horren esparruan, arartekoak **Hezkuntza, haurren eta nerabeen balio demokratikoetan** izeneko hitzaldia eman zuen. Bake Kulturaren Fundazioak hausnarketa, ikerketa, hezkuntza bidez eta ekinaren ekinez bake kultura eraikitzen eta bateratzen laguntzea du helburu.



Herriaren defendatzaileak Marokon

■ Amorebieta-Etxanoko Udalak indarkeria **sexistari buruzko eztabaida foroa, Zornotza Hitz**, antolatu zuen. Eztabaida horretan, arartekoak gain, beste 42 pertsonak parte hartu zuen, arazoari buruzko ikuspegi desberdinak eta prebentzioa nola hobe daitekeen mahaigaineratzeko.

■ Arartekoak Bilbon egin zen eta Petronorreko lehendakariak, Josu Jon Imazek, aurkeztu zuen **FORUM EUROPA Tribuna Euskadi** foroan hitzaldi bat eman zuen. FORUM EUROPA gosari informatibo da, hitzaldiaren eta prentsaurrekoaren arteko hibrido; bertara enpresari nabarmenak, politikoak eta iritzi liderrak joan dira.





Arartekoak hitzaldi bat eman zuen Sabadellen

■ **Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna** ospatzearen ildotik, Iñigo Lamarca Sabadellera joan zen eta, bertan, alkatearekin eta síndic municipal de greugesekin zenbait jardueratan parte hartu zuen. Ekitaldien artean **Gazte guztiak giza eskubideekin** izeneko ekitaldia egon zen. Bertan, Sabadelleko institutu batzuetako gazteek parte hartu zuten. Jarraian, arartekoak Gutxiengoaren berdintasun desberdina izeneko hitzaldia eman zuen.

■ Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzearen ondotik, Euskararen Udal Patronatuak eta Donostia 2016 Bulegoak **MINTZODROMO** izeneko ekimena antolatu zuten, **ka-lean euskararen erabilera sustatze aldera**. Euskara ikasten ari diren pertsonak euskara jada interes orokorreko gaiari buruz hitz egiteko erabiltzen duten pertsonekin mahai-inguruan biltzean zetzan jardueran parte hartu zuen Iñigo Lamarca.

UDAKO IKASTAROAK

Ararteko erakundeak, uztailan, EHUren udako ikastaroekin elkarlanean jardunez, **“Haurtzaroa babes- teko sistemak eta erronkak”** izeneko jardunaldia antolatu zuen Donostiako Miramar jauregian.

Adingabeak, haurrak eta nerabeak bereziki pertsona ahulak dira eta intentsitate bereziko arreta eta babes- behar dute beren eskubideak eta interesak behar bezala babes daitezzen. Ararteko erakundeko adingabeen arloak euskal herri-administrazioetako politikak ahalik eta eraginkorren izan daitezzen lan egiten du.

Arartekoak antola zuen ikastaroak **haurtzaroaren babesaren gaia** jorratu nahi zuen, zentzurik zabale- nean. Alegia, babesteko sistemaz harago joan nahi zuen, alderdi hori hizpide izan arren. Haurtzaroaren babesari buruzko analisia eta hausnarketa ikuspegi desberdinetatik egin zen, batez ere, ikuspegi **juridiko, soziologikotik** eta **hezkuntza** ikuspegitik, esku- hartze orokor eta akademikoagoekin eta jarduteko beste esparru batzuk oinarri dituen esku-hartzeekin, sektorean zuzeneko lan esperientziarekin zerikusi gehiago dutenak: esku-hartze komunitarioa, familia- harrera, egoitza-harrera.



Arartekoa Mintzodromoan

■ Loiola-Donostia Kultur Etxean **“Donostia... barrutik”** erakusketa egin zen, Martutene espetxeko tailerreko presoek egindako obrekin. Arartekoa erakusketa horren inauguraziora joan zen eta aipatu erakusketa **Gizarteratze eta Biktimenganako Zerbitzuaren Euskal Erakundeak (IRESGI)** espetxe horretan burutu duen proiektuaren esparruan kokatu da. Helburuak, besteak beste, honako hauek dira: gizartea presoek bizi duten egoerarekin sentsibilizatzea; inguru komunitarioari dagokionez, espetxearen isolamendua hausten laguntzea eta laneratzea eta gizarteratzea ahalbidetuko duten jarduerak garatzea.

■ Iñigo Lamarca, Donostian, **GEHITU elkarteak** (Euskal Autonomia Erkidegoko lesbiana, gay, transexual eta bisexualak) **orientazio homosexualagatik edo nortasun transexualagatik jazarrirako pertsonen babeserako eskubideari buruz antolatutako** jardunaldi batzuen amaieran parte hartu zuen. Jardunaldietan, Renato Sabadiniren, ILGA elkarteak idazkari nagusi kidearen, hitzaldia nagusitu zen. ILGA lesbiana, gay, transexual eta bisexualen nazioarteko elkarte da eta munduko 672 elkarte barne hartzen ditu.

■ Bilbon, Zamudio Ospitaleak antolatuta, **Buruko gaixotasun larriei buruzko Jardunaldiak** egin ziren. Bertan, arartekoak gizarteak buruko gaixotasun larria duten pertsonak integratzeko duen zereginari buruzko ponentzia aurkeztu zuen. Jardunaldiek buruko gaixotasun larri kronikoak dituzten pertsonen erabilitazio psikosoziala eta laguntza emateko area izan zuten hizpide. Gaixotasun horietako bat eskizofrenia da.

■ Arartekoak, Gasteizen, Bakarrik dauden **adingabe atzerritarren babes juridikoa eta soziala** izeneko mintegiaren inaugurazioan parte hartu zuen. Aipatu mintegia Save the Children erakundeak antolatu zuen. Jardunaldia ireki ondoren, Arartekoaren adingabeen arloko koordinatzaileak, hau da, Fermín Barceló jaunak, **“Sarrera eta**



Julia Hernández ACABEren jardunaldietan

tutoretza” izeneko ponentzia eman zuen.

■ Julia Hernández arartekoaren ondokoak **“La regulación emocional en los trastornos alimentarios”** izenburuko jardunaldietan parte hartu zuen, Bilbon. Jardunaldi horiek Bizkaiko Anorexia eta Bulimiaren aurkako elkarteak (ACABE) antolatu zituen.

■ Julia Hernándezek edadetuei tratu txarrak emateari buruzko hitzaldia eskaini zuen, Gizarte Larrialdiei buruzko III. Jardunaldietan. Jardunaldiok Donostiako Deustuko Unibertsitatean egin ziren, **“Malos tratos y tutelaje en personas mayores y dependientes”** izenburupean.

HERRIAREN DEFENDATZAILEEN KOORDINAZIORAKO JARDUNALDIAK



Herriaren defendatzaileak

Urriari, Sevillan **XXIV. Herriaren Defendatzaileen Koordinaziorako Jardunaldiak** egin ziren. Jardunaldi horiek esperientziak eta ideiak trukatzeko foroan zetzaten eta, bertan, funtzionamenduari eta erakunde horien helburuei lotutako alderdiak eztabaidatu eta bateratu ziren.

Aurten, jardunaldien helburuak **Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia (IKT) baloratzeko analisia** zuen hizpide. Hala, zabaltzeko eta eragiteko gaitasunak “Informazioaren eta Ezagutzaren Gizartea” terminoa sortu du, gure ekonomia eta kultura sisteman informazioa sortzeak, banatzeak eta erabiltzeak duen garrantzia aipatzeko. Era berean, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia herritarren eskubideak baliatzeko tresna bihurtu dira eta gaur egun **beharrezkoak dira gizarte eta ekonomia bizitzan sartzeko**. Sarbiderako muga orok eta erabilerak eskubideen behar bezalako baliatzea eta erabateko gizarte parte hartzea larriki baldintzatzen dute.

Iñigo Lamarca izan zen, Julia Hernández arartekoaren ondokoarekin batera, Ararteko erakundearen ordezkari taldeko burua. Taldeak gai ugari buruzko hainbat bilera eta mahai-ingurutan parte hartu zuen, besteak beste, herritarren eskubideak -adibidez, IKT eskuratu eta erabiltzeari buruzkoak-, erabiltzaileak eta teknologia berriak edo herritarrek eta administrazio elektronikoak planteatu dituen erronkak.

Halaber, jardunaldietan, **Adingabeei eta Teknologia Berriei buruzko Herritarren Eskubideen Foroa** egon zen. Bertan, haur eta gazte batzuek parte hartu zuen eta horietako batzuk bideokonferentzia bidez egin zuten, autonomia erkidego desberdinetan baitzeuden.

ESKOLA UMEEN BISITAK

Ohikoa denez, Ararteko erakundea Gasteizko Hezkuntzako Udal Sailarekin elkarlanean aritu da beste urte batez **Gasteiztxo albistegia** egiten. Arabako hiriburuko ikastetxe ezberdinetako ikasleek aldian-aldian bisita egiten dituzten jardueran datza eta ikasleok, egun batez kazetari bihurtuta, **erakundearen lanari lotutako datuak eta informazioak biltzen dituzte**, ondoren irratian edo telebista saioa edo egunkaria egiteko.

ESKOLA LANEN IV. LEHIAKETAKO SARI BANAKETA

Arartekoak eta ondokoak Gasteizen “**Gure eskubideak**” eskola lanen **IV. Lehiaketako sariak** banatu zituzten. Lanak aztertzeaz arduratu zen batzordeak bi proiektuak praktika onaren eta baliabideen erabileraren adibide gisa baloratu zituen (tutoretza saioak, Internet...). Aipatutako horiek ikastetxe guztiek dituzte eskuragarri.

- **Lehen Hezkuntzako saria: Urretxuko Gainzuri ikastetxeari.** Ikastetxe horrek lan programa sistematikoa aurkeztu zuen, ikasturte guztian zehar eta maila guztietan (2 urtetik 12 urtera arte), giza eskubideei buruzkoa.
- **Bigarren Hezkuntzako saria: Leioako Artaza-Romo BHLri.** Ikastetxe horrek aurkeztutako lana eta materialak, Ikasketa Eleaniztunen Proiektuaren barruan eskainitako Gizarte, Kultura eta Erlitio irakasgaiari, ingelesez gauzatu ziren.

Lehiaketa horretan parte hartu zuten ikastetxe guztiek partaidetza ziurtagiria jaso zuten.



ZURE ESKUBIDEAK DEFENDATU BEHARRA DAUKAZU?

ARARTEKORA JO DEZAKEZU

- Euskal administrazio publikoak zurekin gehiegikeriaz, legez kanpo, nahikeriaz, bereizkeriaz, oker edo zabarkeriaz jokatu duen ikertzeko.
- Udalak, Aldundiak edo Eusko Jaurlaritzak oker jokatu badu, zure arazoa konpon dezan.
- Guztion onerako hobekuntzak gomenda ditzan.

ZER DA ARARTEKOA?

- **Euskadiko Herri Defendatzailea** da.
- Erakunde **independientea** da.
- **Dohain eskaintzen** den zerbitzua.

ZER EGÍTEN DU ARARTEKOAK?

- Pertsonak babestu euskal administrazio publikoen kontra.
- Herritarren eta administrazioaren arteko bitartekari izan.
- Legez kontrako egoerak galerazteko begiratu eta lan egin.
- Konponbideak proposatu eta legeak aldatzera bultzatu.
- Eusko Legebiltzarrari bere lanaren berri eman.

NOIZ JO ARARTEKORA?

- Administrazio batekin edo haren menpeko zerbitzu publiko batekin arazoren bat duzunean.
- Zerikusirik duen administrazioaren aurrean erreklamatu ondoren, erantzunik edo konponbiderik lortu ez duzunean.
- Momentu horretatik hasita, urtebeteko epearen barruan.

NOIZ EZ JO ARARTEKORA?

- Pertsona partikularren arteko auzia denean.
- Gaia auzitara eraman denean.

NOLA EGÍN KEXAK?

- Norberaren datuak (izen abizenak, helbidea eta telefono zenbakia), agiri baliagarrien kopiak eta, ahal denean, kexaren arrazoia azaltzen duen idaztia eman.
- Arartekoari zuzendutako gutunaren bidez (Prado, 9 - 01005 Vitoria/Gasteiz).
- Internet bidez: www.ararteko.net
- Norbera hiru bulegoetako batera joanez.

NORA JOAN?

Harrera zuzeneko bulegoak

Arabari

Prado, 9 • 01005 Vitoria - Gasteiz
Tel.: 945 13 51 18 • Faxe: 945 13 51 02

Bizkaian

Albia eraikina. San Vicente, 8 - 11. solairua
48001 Bilbao
Tel.: 944 23 44 09

Gipuzkoan

Askatasun hiribidea, 26 - 4.
20004 Donostia - San Sebastián
Tel.: 943 42 08 88

Dei iezaguzu argibide gehiago behar baduzu

